URTEKARIA 2020

anboto

EROSKI
zurekin

Hemengoa
izatea ona da

Hemengoak
gara eta
bertako
produktuen
kontsumoa
sustatzen dugu

www.eroski.es

Luzaroan gogoratuko ditugu 2020 honetan bizitakoak, baita bizi barik utzi ditugun uneak ere. Dudarik barik, koronabirusaren agerpenak eta honen eraginak bete dute orririk gehien, ANBOTOn ez ezik munduko edozein egunkaritan. Telebista ordurik gehien ere horrek hartu ditu. Eta erronka suposatu du horrek ere: zelan ekarri gurera munduan zabaldu den pandemia bat? Bada, betiko moduan, informazioa tokiko ikuspuntutik landuta. Itxialdian, lanean jarraitu genuen herritarren informazio gosea asetzeko, ahal izan genuen moduan, eta ordainetan inoizko daturik onenak izan genituen. Gaur egun ere, gertutik kontatzen ari gara birusaren agerpena eragiten ari den krisialdi ekonomikoa; Durangaldeko ostalariek, dendariek, sortzaileek, ikuskizunetako teknikariek, herri mugimenduek... dituzten zailtasunak hurbiletik bizi ditugu, eta horrela kontatzen ari gara.

Otsailean ere gertutik bizi izan genuen Zaldibarko hondakindegiaren amiltzea. Eitzagako bizilagunek gugaz berba egitea aukeratu zuten hasierako egun zalantzati haietan, ezagutzen gaituztelako. Badakitelako zelan lan egiten dugun. Lur-jausiaren ostekoak ere bertatik bertara kontatu ditugu, eta kasuaren nondik norakoak kontatzen jarraituko dugu 2021ean ere.

Plateruenaren itxierak gertutik kolpatu gaitu. Ia hamarkada bian euskararen eta kulturaren aterpea izan denak ateak itxi ditu. Berau gidatzen zuen kooperatiba desegitea erabaki zen irailean, eta erabakiak lurrikara eragin zuen kulturgintzan.

Urte berrirako apustua argi dugu: tokiko informazioa tokiko ikuspuntutik lantzen jarraituko dugu, beste hedabide batek landuko ez duen moduan, euskaraz eta betaurreko moreak kendu barik. Urte arraro eta gatx honetan geure onena ematen ahalegindu gara, eta aurreratzean ere bide horri ekiteko gogotsu gaude. Baina hau ez litzateke posible zu barik, irakurle. Zuek barik, ANBOTOren lagunak. Mila esker zuen babesagaitik. Komunitatea eraikitzen jarraituko dugu. Biba zuek! 2021a albiste hobeez betetako urtea izatea opa dizuegu!

Anbotoko lantaldea

anboto
946 816 558 · anboto@anboto.org

AURKIBIDEA

4 URTARRILA
8 OTSAILA
12 MARTXOA
16 APIRILA
20 MAIATZA
24 EKAINA
28 UZTAILA
32 ABUZTUA
34 IRAILA
38 URRIA
42 AZAROA
45 ABENDUA

Anbotorenlagunak
Lekuan lekuko lagunak
lagunak@anboto.org · Tel.: 946 816 558

Anboto lagun zarena
babesle hurrekoena
jaso ezazu guztion partez
gure esker beroena

Gure parte sentitzeko
proiektua babesteko
anboto lagun bihurtu
zaitez euskara
mundura tzeko

Anboto komunikabideak
@anboto
@anbotokomunikabideak

Aldarrikapen sozial guztien aldeko greba orokorra

Erreportajea - DURANGALDEA

> EKONOMIA. Lantokietatik hasi eta gizarteko beste hainbat sektoretara zabaldu zen urtarrileko greba orokorra. Durangaldeko enpresetako beharginek, sindikatuek, elkarte feministek, pentsiodunek, gazte taldeek eta eragile feministek elkarregaz egin zuten protesta. "Lan, pentsio eta bizitza duinak" aldarrikatu, eta "bizitzak erdigunean" ipintzeko deia egin zuten. Gizarteko maila guztietan gertatzen diren prekaritate egoerak salatu zituzten: lantegietako azpikontratazioak, matxismoa eta gutxieneko pentsioak, besteak beste. Grebalariek Abadiñoko McDonald's jatetxean utzi zuten protestaren irudirik esanguratsuenetariko bat. Baserritarrek artaldea eraman zuten bertara.

Futbolari batek irain arrazistak jaso ditu

Kirola - ABADIÑO

> ARRAZAKERIA. Abadiño Futbol Taldeko jokalari batek irain arrazistak jaso zituen partidua ikusten zegoen gizonezko baten partetik. Gertakaria Arrankudiagan izan zen, Abadiñoko taldearen eta Escolapios futbol taldearen arteko partiduan. Abadiñoko futbol taldeak salatu zuen ez zela horrelakoren bat pasatzen zen lehenengo aldia, eta argi esan zuen ez duela horrelako egoerarik onartuko. Abadiñoko eta Arrankudiagako udalek gaitzetsi egin zituzten irainak eta "babes osoa" eskaini zioten jokalariari.

Negozio eredu berriak Somaliako gazteentzat

Herririk herri - DURANGO

> ELKARTASUNA. Ainara Atorrasagasti Urizarrek (Durango, 1981) astebete egin zuen Somalian, hango gazteei negozio eredu berriak zelan garatu irakasten. 16tik 26 urtera arteko gazteekin ibili zen lanean. Irakaskuntza eskuragarriago bat lantzeko aplikazio bat eta emakumeentzako gimnasio bat sortzea izan ziren landutako proiektuetariko batzuk. Unicef erakundeagaz batera garatu zuen hango egitasmoa. Somalian egon aurretik, Mauritanian ere egondakoa da Atorrasagasti.

800 euro batu dituzte Garaiko errematan

Herririk herri - GARAI

> ELKARTASUNA. Garaitarrek diru kopuru polita batu dute San Anton eguneko errematan. Lazaro Milikuak egin zituen enkanteko bitartekari lanak, eta "pozik" agertu zen emaitzagaz: "Iaz 600 bat euro batu genituen eta kopuru hori gainditzea lortu dugu aurten". Batutako diruaren erdia elizako gastuei aurre egiteko baliatu zuten; beste erdia Ekuadorreko proiektu batean inbertitzeko.

Haize berria xake talde durangarrarentzat

Kirola - DURANGO

> XAKEA. Maitane Varas López de Etxezarretak (Durango, 1997) Larrasoloeta xake taldearen gidaritza hartu zuen 2019an, eta kluba sendotzeko apustua egin du aurten. Taldean jende gutxi zegoelako eta egoera larritzen zebilelako erabaki zuen bere taldea izandakora bueltatu eta presidentetza hartzea. Txapelketak antolatzea eta xakeari ikusgarritasuna ematea dira Varasen helburuetariko batzuk. Landako I kiroldegiaren azpialdean ematen dituzte eskolak.

Sagardo kalitate ona, sagar gutxi batu arren

Herririk herri - ZORNOTZA

> SAGARDOA. Bizkaiko sagardogileek Zornotzako Uxarte sagardotegian zabaldu zuten denboraldia. Udako sikateek sagarraren garapenari eragin zioten arren, horrek mesede egin zion amaierako emaitzari. Sagarra batzerako unean ale bakoitza zorrotz aukeratu beharrak sagardoaren kalitatea hobetzea ahalbidetu zuen. Javier Conde eta Mikel Garcia atletek zabaldu zuten aurtengo denboraldia. "Pozik eta esker oneko" agertu ziren.

Heroinak eragindakoak kontatzeko antzezlana

Kultura - DURANGO

> ANTZERKIA. Unai Iturriaga eta Igor Elortza bertsolari durangarrek *Zaldi Urdina* antzezlana idatzi zuten Arteaga, Dejabu eta Axut! konpainietako kideekin batera. Heroinak Euskal Herrian eragindako sarraskiak kontatu zituzten, garaiko beste hainbat arazo sozioekonomikori ere erreparatuta. Durangaldean idatzitako obra Euskal Herri osoan aritu dira antzezten. Urtarrilean plazaratu zuten Durangaldean.

"Gaztetatik gustatzen zaidana egin dut eta bide horrek honaino ekarri nau"

Erreportajea - ABADIÑO / GARAI

> OPERA. Andeka Gorrotxategi (Abadiño, 1977) tenoreak pauso berriak eman ditu bere ibilbide arrakastatsuan. Kontzertuak Bilbon eta Getxon eskainita amaitu zuen iazko urtea. *Alere!* lana eskaini zuen, euskal operaren zati batzuekin osatutako kontzertua. Urte berria *La Boheme* eta *Carmen* lanak interpretatuta hasi zuen, besteak beste.

Gorrotxategik Durangoko kontserbatorioan hasi zuen bere ibilbide musikala. "Musika munduan 8 urtegaz hasi nintzen, solfeoa ikasten, eta 12 bat urtegaz utzi egin nuen. Gero, koruan apuntatu nintzen", azaldu zuen.

"Gaztetan ez nituen ideiak oso argi. Gaztetatik gustatzen zaidana egin dut eta bide horrek honaino ekarri nau", esan zuen. Apurka-apurka bidea eginez joan da harik eta mundu osoko antzokietan kantatu duen arte. Venezian, Alemanian, Australian, Mallorcan, Montecarlon zein etxean bertan.

Beste une gogoangarri bat Sidneyko Opera Houseko bideokoa da. Gorrotxategi *Turandot* opera abesten agertzen da eraikin famatuko teilatu gainean. Bideoak oihartzun handia izan zuen interneten.

Tenorea Garain bizi da familiagaz. Konfinamendu egunak bertan pasatu ditu eta makina bat bider alaitu zituen auzotarren belarriak, bere etxeko balkoitik kantatuta. "Urte batzuk barru kontserbatorioren batean kantu irakaslea izatea gustatuko litzaidake", aitortu zion ANBOTOri. "Irakasle izateaz gainera, etxetik hurbil egon ahal izatea asko baloratzen dut", esan zuen.

Errekatxiki inguruko bidea konpondu dute

Herririk herri - OTXANDIO

> BIDE-LANAK. Hormigoirik erabili barik, errekarriak hartuta eta sahats sustraiak ipinita konpondu dute Errekatxiki inguruko hormaren behealdea. "Lanak amaitu eta gero, gune hori jatorrizko inguru naturalaren ahalik eta antzekoena izan dadin ahalegindu gara", azaldu zuten URA agentziako ordezkariek.

Etxebako bat hil da banketxe batean

Herririk herri - DURANGO

> BAZTERKERIA. Etxebako herritar bat hil zen Durangoko banketxe batean. Gizarte bazterkeriaren aurka lan egiten duen BesteBi plataformaren esanetan, gertatutakoak "oihu zuzena" egiten du "oraindino bazterkeria egoerarik larriena, kalean bizi izatea, gainditu ez duen euskal gizartearen kontzientzian". Plataformak mobilizaziora deitu zuen Ezkurdi plazan eta hainbat herritarrek egin zuten bat deialdiagaz. Durangoko Udalak heriotza deitoratu zuen. "Ez da onargarria sasoi hauetan oraindino ere gure herrietan hainbat pertsonak horrelako bizi baldintzak izatea", adierazi zuen. Durangokoa gertatu baino egun batzuk lehenago, beste etxebako bat hil zen Donostian.

Aterpe berria ipini dute J.A. Agirre plazan

Herririk herri - ZALDIBAR

> JOLASGUNEA. Aterpe berria estreinatu dute Zaldibarko umeen jolasgunean, Jose Antonio Agirre plazan. Zaldibarren gune estalirik ez dagoelaeta, Jose Luis Maiztegi alkateak beharrezkotzat jo zuen proiektua. "Proiektu hau herritarren eskaera bat zen", azaldu zuen. Estalkia ipintzeak 90.000 euroko inbertsioa izan zuen.

Eraberritze lanak Zengotitako ondarean

Herririk herri - MALLABIA

> ONDAREA. Mallabiko Udalak herriko ondare historikoa berreskuratzeko bidea hasi du. Zengotita auzoko garbitegia sasiak hartuta zegoelaeta, garbitze lanak egin zituzten urtearen hasieran. Mallabiko Udalak hango teilatua eta Artetako ermita eraberritzeko asmoa ere badu. 40.000 euro bideratu gura dituzte horretarako.

Protesta, ordainsaria kentzea eskatzeko

Herririk herri - DURANGALDEA

> AUTOPISTA. Ap-8 Peajerik ez! plataformak manifestazioa egin zuen Durangaldeko autobide-ordainlekuak kendu zitezen eskatzeko. Plataformak argudiatu zuen bidesariak "oztopo" direla "inguruaren garapenerako", eta Durangaldeko biztanleak "bigarren mailako bizkaitar lez" tratatuak direla bidesariekin. Manifestazioa Iurretako ordainlekuan amaitu zuten.

Miguel Angel Oregi 'Kali'-k taberna zarratu du

Akuilua - ABADIÑO

> OSTALARITZA. Traña-Matienako Ostendi tabernak ateak itxi ditu. Miguel Angel Oregi 'Kali' tabernariak erretiroa hartu zuen, eta horregaz batera amaiera eman zion 1946tik honako negozio familiarrari. Belaunaldi askoren topalekua izan da 'Kali'-ren ostatua, makina bat jai, parranda, otordu eta maitasun istorio sortu dituena. Itxieragaz, Traña-Matienak toki enblematiko bat galdu zuen.

Bakixa, Donostiako danborradaren pare

Herririk herri - IURRETA

> JAIAK. Bakixako auzotarrek ez dute Donostiako danborradaren inbidiarik. Geroago eta auzotar gehiagok parte hartzen du jada urteroko ohitura bihurtu den San Sebastian jaietako danborradan. Horren erakusle da aurten lehenengoz Tanborrada Txikia batu zaiola Tanborrada Mundialari. Dozena bat danborrari batu ziren talde txikian, eta beste 25 bat handian.

Lutxiren janari-dendak ateak zarratu ditu

Akuilua - DURANGO

> DENDAK. Barrenkaleko Lutxiren janari-dendak ateak zarratu ditu, 50 urteren ondoren. Aldaketak gertatu direla zioen Virginia Urkidik, Lutxiren alabak: "Barrenkale Durangoko kale komertzialik onena zen askogaitik. Zazpi harategi, lurrin-denda, arraindegia, kazola-denda, fruta-dendak... Kale honetatik irten barik, erosketa guztia egin zitekeen. Begira orain zer gertatzen den". Urkidik esker ona adierazi zien bezero guztiei.

Zaldibar

Eitzagako Verter Recycling zabortegia amildu eta behargin bi harrapatuta geratu dira

Erreportajea - ZALDIBAR

> ZABORTEGIA. Zaldibarko Eitzaga auzoan pasatutakoa urte honetan izandako gertakaririk garrantzitsuenetariko bat da. Otsailaren 6an lur-jausi bat egon zen bertako Verter Recycling zabortegian. Mendi-hegal zati bat amildu eta A-8 autobidera jausi zen. Lur-jausian, zabortegiko behargin bi harrapatuta geratu ziren: Joaquin Beltran eta Alberto Sololuze. Gertatutakoak astindu handia eragin zuen Euskal Herri osoan. Batetik, langile biak lur-jausian harrapatuta geratzeak samina ekarri zuen. Bestetik, ingurumenari lotutako hainbat krisialdi izan ziren. Zabortegian sutea piztu zen eta inguruko herrietako biztanleek ezin izan zituzten leihoak zabaldu hainbat egunean. Bestalde, Aixola inguruko errekastoetara lixibiatuak ailegatu ziren. Ingurumen Sailburuordetza horiek ekiditeko lanetan ibili zen.

Durangoko epaitegi batek auzibideak hasi zituen zabortegia zerk eraginda amildu zen ikertzeko. Bien bitartean, kalean, auzia argitzeko eskariek indarra hartu zuten. Zaldibar Argitu plataformak hainbat mobilizazio egin ditu hilabete luzez, orduan gertatutakoa argitzea eskatzeko. Besteak beste, zabortegiaren kudeaketan irregularta-sunik egon ote zen argitzeko eskatu du plataformak.

Amiantoa, zabortegiko hondakinen artean

Herririk herri - ZALDIBAR

> HONDAKINAK. Beltran eta Sololuze erreskatatzeko lanak eten egin ziren, hondakinetan amiantoa topatu zutelako. "Amiantoa zegoela jakin" arren, erreskate taldeko langileen osasuna babestu ez izana leporatu zion LABek Jaurlaritzari.

Dioxinek eta furanoek kezka piztu dute

Herririk herri - ZALDIBAR

> SUTEA. Otsailaren 8ko goizaldean sutea piztu zen zabortegian. Hatsa jasangaitza izan zen Eitzagan, Ermuan eta Zaldibarren. Herritarrak oso arduratuta zeuden dioxinak eta furanoak zirela-eta. Ingurumen Sailburuordetzak hainbat gailu ipini zituen emisioak neurtzeko. Airearen kalitatea neurtzeko adierazleak "parametro normaletan" zeudela esan zuen Jaurlaritzak.

Zaldibar

Eitzagarrak, urik edan eta barazkirik jan ezinik

Herririk herri - ZALDIBAR

> OSASUNA. Zabortegiko lurretatik inguruko errekastoetara lixibiatuak ailegatzen ari zirela-eta, alarmarako botoiak sakatu zituzten. Osasun eta Ingurumen sailak kezkatuta zeuden lixibiatuok errekastoetatik txorrotera ailegatuko ote ziren. Kontua da Eitzagako baserri batzuk ur sistema orokorrera konektatu barik zeudela orduan, eta mendiko ura baliatzen zutela. Prebentzio moduan, Zaldibarko Udalak txorrotako urik ez erabiltzeko eskaria egin zien eitzagarrei. Egoera hori bizi izan zutenetariko bi Edurne Zarraoa eta Jose Antonio Elustondo auzotarrak izan ziren. "Txorrotako urik ez edateko eta ortuko berdurarik ez jateko esan digute. Baina abereak dituztenak arduratuta daude. Ona da haien esnea? Ona da haien okela?", zioen Elustondok. Azterketa mediko bat egitea eskatu zuten. "Mediku-azterketaz gainera, gure osasunaren inguruko jarraipena egitea eskatzen dugu, auzotar guztioi", azaldu zuen Edurne Zarraoak.

Haserrea kalean

Herririk herri - ZALDIBAR

> MANIFESTAZIOA. Manifestazio jendetsu batek zabortegian gertatutako guztia argitzeko eskatu zuen. Mobilizazioa Ermutik hasi eta Eitzagako plazan amaitu zen. Milaka izan ziren bertaratutako herritarrak. Horien artean, eibartarrak, ermuarrak, zaldibartarrak eta elgetarrak zeuden batez ere. Eitzagako auzotarrek salatu zuten agintariek urte luzez ahaztuta izan dutela auzoa. Desagertutako langile bien familiak ere bertan izan ziren. Ordu hartan, topatu barik zeuden Alberto Sololuze eta Joaquin Beltran beharginak.

Auzibideak zabortegiko arduradunen kontra

Herririk herri - ZALDIBAR

> AUZIA. Durangoko Auzitegiak auzibideak hasi zituen Verter Recycling enpresako arduradunen kontra. Auzibideetariko batek ingurumen arloko argiketa egin gura du. Beste auzibideak lan arloko gaiak ikertu gura ditu. Ertzaintzak enpresaren jabea eta beste arduradun bi atxilotu zituen. Zaldibar Argitu herri akusazio modura batu zen auzira.

Alberto Sololuzeren hezurrak topatu dituzte

Herririk herri - ZALDIBAR

> BEHARGINAK. Erreskate taldeko kideek Alberto Sololuze beharginaren hezurrak topatu zituzten abuztuaren erdialdean. Hondakindegiko baskula kokatuta zegoen inguruan hankako hezur bat topatu zuten, 23 metroko sakoneran. Beste giza arrasto batzuk ere topatu zituzten. DNA probak egin eta gero, gorpuzkiak Sololuzerenak zirela baieztatu zuen Eusko Jaurlaritzak. Hortik aurrera, erreskate taldeek lanean jarraitu zuten Joaquin Beltran aurkitzeko. Irailean plangintza berri bat aktibatu zuten. Bilaketa lau eremu zehatzetan egiten hasi ziren. Urtekari hau ixterako, Joaquin Beltranen arrastoak topatu barik zeuden.

42 artistaren obrak batzen dituen 'Sorginak!' erakusketak sona handia eduki du

Kultura - DURANGO

> MUSEOA. Sorginkeria leporatuta, 250.000 emakume jazarri, salatu, torturatu eta erail zituzten Europan, XV. eta XVIII. mendeen artean. Errealitate historiko horri buruz hausnartzeko, erakusketa bat antolatu zuten Durangoko Arte eta Historia museoan: *Sorginak!*. Erakusketan 42 artistaren obrak egon ziren ikusgai; tartean, Goiuri Aldekoa-Otalora durangarraren *Atzokokaka* ikus-entzunezko lana; Moxalen abesti bati irudiak ipini zizkion Aldekoa-Otalorak. "Elizak eta kapitalismoak ere eragin dute emakumeak zapalduta mantentzen. Hortik irteten ari garela adierazi gura izan dut lanean". Silvia Federiciren *Caliban eta sorgina* liburua hartu zuten erakusketarako oinarri teoriko lez. Erakusketak harrera ona izan zuen eta luzatu egin zuten Durangoko Museoko egonaldia. Hile bian itxita egon arren, museoko lantaldeak lanean jarraitu du pandemia betean ere, eta kulturzaleekin ere kontaktua mantendu du sare sozialen bitartez. BAEMegaz elkarlana sendotzeko ere baliatu du urtea museoak.

Kiroldegietako lan gatazka konpondu da

Herririk herri - DURANGALDEA

> KIROLDEGIAK. Hile luzetako greba, protesta eta tirabiren ondoren, Bizkaiko patronalak eta kiroldegietako beharginek lan hitzarmena eguneratzeko akordioa sinatu zuten. Itunaren arabera, kiroldegietako beharginek 1.200 euroko gutxieneko soldata izango dute 2022tik aurrera. 2021etik aurrera, ostera, 1.200 euro horietara ailegatzeko aukera izango dute hainbat pizgarri baliatuta (gauez lan egiteagaitik eta antzinatasunari lotutako pizgarriak, besteak beste). Akordioak islatutako beste puntu esanguratsu bat inaplikazio klausula da. Horren arabera, enpresek ezin izango die ihes egin sindikatuen eta patronalaren artean hitzartutakoa betetzeari. Akordioa lortuta, Durangaldeko kiroldegietako beharginek grebak alde batera utzi zituzten. Eskualdeko herri askotan egin zituzten lanuzteak, Zornotzan, Abadiñon, Elorrion eta Berrizen, esaterako.

Mallabiko baserri bi, argindar linea artean

Herririk herri - MALLABIA

> AZPIEGITURAK. Mallabiko Ariño eta Ariño Etxebarri baserrietako bizilagunek kezkaz ikusi dute Gueñes-Itsaso goi-tentsioko argindar linearen bilakaera. Baserri biak argindar linea biren erdian harrapatuta geratuko zirela-eta, hainbat kezka agertu zituzten. "Proiektua buletin ofizialean irten zenean, ipintzen zuen ez zegoela etxebizitzarik argindar lineatik 100 metrora baino gutxiagora, baina guk orduan esan genuen gezurra zela", adierazi zuen Ariño baserriko Rikardo Urienek. Ariño Etxebarri baserriko Jose Ramon Olanok ere haserre hartu zituen argindar linea berriaren lanak. "Proiektuaren arduradunak ipiniko nituzke dorrearen ondoan bizitzen", esan zuen.

Baserritarrek alegazioak ipini zituzten. Argindar kableak lurperatzeko eskariak ere egin zituzten, baina proposamenek ez zuten aurrera egin.

Ametsola guneak ateak zabaldu ditu

Herririk herri - ELORRIO

> AISIALDIA. Elorrioko ume eta gurasoek aisialdirako gune bat inauguratu zuten: Ametsola gunea. 0tik 6 urtera bitarteko umeentzat bideratutako gune estalia da, irudimena lantzeko aukera eskaintzen duena. Sasoi bateko ludotekak indarra galdu zuela-eta erabaki zuten Ametsola zabaltzea.

13.065 euro batu dituzte kafetegi sozialaren alde

Herririk herri - ZORNOTZA

> ELKARTASUNA. Zornotzako Harrera Taldeak diru bilketa egin zuen kafetegi eta dastategi sozial bat zabaldu ahal izateko. 13.065 euro batu zituen Bizkargi taberna zegoen tokian izen bereko kafetegi soziala zabaltzeko. Diru ekarpenak alde askotatik ailegatu ziren. Norbanakoek eta elkarteek egin zituzten. Zornotzako bertako eragileak izan ziren dohaintza egin zutenetariko asko; Euskal Herriko beste hainbat puntutatik ere ailegatu ziren dohaintzak. Kafetegi sozialagaz, haien jaioterrietatik alde egitera behartutako herritarrei lagundu, eta zornotzarrei zuzendutako bilgune sozial bat sortzeko prozesua landu du Harrera taldeak. Lokal berriak udazkenean zabaldu zituen ateak.

Emakumeen errugbia berpiztu dute Elorrion

Kirola - ELORRIO

> ERRUGBIA. Elorrioko 40 bat emakumek indarra batu zuten sasoi bateko errugbi taldeari bizi berria emateko. Hamarkada bi baino gehiago pasatu dira aurreko taldea desegin zenetik. Miren Zorrakin jokalariak azaldu zuen "gogotsu" ekin ziotela ibilbideari. "Denok gogotsu gaude eta osagai guztiak ditugu taldea aurrera eramateko", esan zuen. Jokalarien artean, esperientziadunak eta esperientziarik bakoak zeuden. Broma batetik hasita errekuperatu zuten taldea. Whatsapp talde bat sortu zuten eta apurka jende berria batzen joan zen. Handik sortu zen ideia.

Wikipedia emakumeen biografiez elikatzen

Herririk herri - DURANGO

> FEMINISMOA. Durangoko Andereak elkarteko kideek Wikipedia artikuluz hornitzeko tailerrak egin zituzten. Emakumeei buruzko biografiak eta erreferentziak idatzita ekin zioten plataforma elikatzeari. Helburu argi bat zuten: emakumeen ikusgarritasuna Wikipedian eta Interneten areagotzea. "Durangaldeko emakume ugarik merezi dute profila edukitzea. Gaur egungo emakumeekin errazagoa da, informazio gehiago dugulako. Baina badaude sareetan inongo informaziorik ez duten emakumeak. Hemendik aurrera, emakume eta gizonen arteko arrakala murriztea izango da helburua", azaldu zuten artikuluen sorkuntzan parte hartzen zuten kideek. Durangaldean, bederatzi bat emakumek lan egiten dute Wikipedia eduki parekideekin hornitzen.

Ikurrina eskuan, Jose Angel Iribarrek eta Inaxio Kortabarriak 1976ko irudia errepikatu dute

Kirola- ZORNOTZA

> FUTBOLA. 1976an, Athleticen eta Realaren arteko derbiaren atarikoan, historiarako geratu zen irudiko protagonista izan ziren Jose Angel Iribar eta Inaxio Kortabarria talde bietako kapitainak. Ikurrinari eusten zelairatu ziren Atotxara, zaleen txaloen artean. Orduan, oraindino legez kanpo zegoen ikurrina. Martxo hasieran irudi hori berritu zuten Zornotzako Andra Mari ikastolan, guraso elkarteak euskararen erabileraren inguruan antolatutako berbaldi batean.

Protagonista biek euskararen egoerari buruzko gogoeta egin zuten eta, zelan ez, derbi historiko haretako pasarteak ere gogoratu zituzten. Esaterako, Iribarrek proposamena jaso zuen unea gogoratu zuen: "Kapitaina nintzen, baina erabaki hori ezin nuen neuk bakarrik hartu. Aldageletara joan eta taldera eraman nuen eskaintza. Egoera orokorra ikusita, horrelako zerbait egiteko une aproposa zela esan nuen eta denek baietza eman zuten".

Zelan lortu zuten ikurrina zelaira ateratzea legez kanpo zegoen sasoian? Kortabarriak kontatu zuen plana: "Zorro batean gorde genuen. Zelairako tunela estua zen Atotxan, eta gogoan dut alde bietan 'grisak' zeudela. Tunela zeharkatu, eta handik zelaira ikurrina eskuan irten genuen".

Talde bien arteko hartu-emana "zoragarria" zelako irten zuen aurrera ikurrinaren ideiak. "Hartu-eman hori barik ez dut uste posible izango zenik", adierazi zuen Realeko kapitain ohiak.

Euskararen erabileraren inguruan, Kortabarriaren ustez, "orain lehen baino jende gehiagok daki euskaraz; kontua da zergatik ez diren euskaraz aritzen". Iribarren iritziz, norbere barruan dago euskaraz aritzea. "Konpromiso pertsonal bat hartu beharra dago", esan zuen Athletic taldeko atezain eta kapitain ohiak.

Abadiñoko igerilekua itxita hainbat hilean

Herririk herri - ABADIÑO

> AZPIEGITURAK. Haizeteen ondorioz, Astolako igerilekuko sabaiaren zati bat jausi egin zen urte hasieran. Ondorioz, igerilekua itxita egon zen hainbat hilean, arazoa konpondu eta udan berriro zabaldu zuten arte. Bitartean, hainbat erabiltzailek euren kezkak eta kexak azaldu zizkioten ANBOTOri. Erabiltzaileak ez ziren izan kaltetu bakarrak. Igeriketa zerbitzuak bertan behera geratu zirenez, azpiegitura kudeatzen zuen enpresak hainbat langile kaleratu zituela salatu zuten igerilekuko langileek.

Atxondoko maisu etxea, AHTaren aurkako sinbolo

Herririk herri - ATXONDO

> AZPIEGITURAK. Aurten Abiadura Handiko Treneko lanak hasi dituzte Atxondon. Lanak hasteagaz batera, azpiegitura honen kontrako protestak ere ugaritu egin dira herrian. Esaterako, martxoan, AHTrik Ez plataformako kideek adreiluekin itxi zuten maisuen etxea. Eraikina zegoen lekuaren ondotik doa AHTaren ibilbidea. Bertan, 1.754 metroko luzera izango duen zubi bat egingo dute, eta zutaberik altuenak 85 bat metro izango ditu.

"Adifek herri hau porlanez betetzeko asmoa du eta maisu etxea erabiltzea lotsagarria da. Horregaitik itxi dizkiogu ateak; herriarentzat ez bada, herria txikitzeko asmoz datozenentzat ere ez da izango", adierazi zuten.

Martxo amaierarako eta maiatzerako, makroproiektuaren kontrako manifestazio bana antolatu zuten. Jendetsuak izan ziren biak. "Herri bizi bat gura dugu, kutsadurarik bakoa, osasuntsua, landa eremuekin eta elkarte biziekin", adierazi zuten deitzaileek mobilizazioen amaieretan. Urtean zehar antolatutako kazeroladak izan dira AHTaren kontra protesta egiteko beste modu bat.

Apatamonasterio herrigunetik igarotzen den kamioi kopurua da lanen ondorioetariko bat. Konfinamenduaren ondoren, lanei berrekin zietenean, plataformako kideek kamioien joan-etorri "izugarria" salatu zuten.

Sasoi hartan, apirilean, udaletik jakinarazi zuten Xabier Azkarate alkatearen (EAJ) kontrako kartelak agertu zirela herrian, eta euretan AHTaren inguruko informazioa eman gura ez izatea leporatzen ziotela. Ildo horretatik, Azkarate alkateak azaldu du "une oro bildu" dela "hala eskatu duenagaz". Horrez gainera, esan zuen bere ateak "beti" egongo direla zabalik "gura duten auzotar guztiak" hartzeko, betiere "errespetuz, erasorik barik eta elkarrizketaren bitartez" bada.

Oposiziotik, ostera, EH Bilduk jakinarazi zuen hainbat bider eskatu diotela udalari udal ordezkarien mahai bat eratu eta urgentziazko bilera bat egiteko, AHTaren inguruan berba egiteko, baina ez dutela erantzunik jaso. "Alkateak argi eta garbi utzi dio herriari bere lehentasunen zerrendan zer den urgentea eta zer ez", salatu zuten.

Otxandion, bertako basoak berreskuratzen

Herririk herri - OTXANDIO

>LANDAKETA. Otxandion, Gomilaz eta Gordobil arteko hektarea bitan, zuhaitz autoktonoen 1.400 landare berri landatu zituzten. Landareak aukeratzerako orduan, ingurua garbitzen zebiltzala aurkitutako bitxikeria bat kontuan hartu zuten. Sasoi batean erletegiak babesteko funtzioa zuen harrizko horma bat aurkitu zuten, eta etorkizunean eremua erletegi moduan berreskuratzeko aukerari atea zabalduta, erleentzat aproposak diren zuhaitz landareak aukeratu zituzten: basoko makatza, basoko sagarra, elorri zuria, gerizondoa…

Isolamendu sasoian, osasun arloko langileak lanez gainezka egon ziren

Herririk herri - ZORNOTZA

> GIZARTEA. Koronabirusaren ondorioz osasun sistemak gainezka egin zuen sasoian, Sara Estebez erizain zornotzarra gaixoak artatzen aritu zen Galdakaoko ospitalean. "Antsietate handiko" uneak bizitzen zebiltzala kontatu zuen: "Lanera goazenean, mediku eta erizainok lehenengo lerroan egon behar dugu, eta, gainera, badakigu ez gaudena ondo babestuta".

Material falta zutela zehaztu zuen. "Ez daukagu erabili behar genukeen materiala; hau da, babes ekipemendua deritzoguna. Galdakaon, esaterako, beti erabili izan ditugun batak erabiltzen gabiltza beste teknika batzuk egiteko. Gainera, berrerabili egiten ditugu. Azken egunotan bizi dugun momentuko egoerari aurre egiteko, zabor poltsekin txalekoak egiten gabiltza", azaldu zuen.

Zainketa Intentsiboetako Unitatea (ZIU) gainezka egiteko zorian zegoen. "Gure ZIUn boxen hamar gela izaten ditugu normalean. Orain, egokitzapen batzuk egin eta hamabost ditugu, eta horietatik hamabi okupatuta daude. Betetzen denean, erreanimazio solairura igoko ditugu. Gela hura egokitu egingo dugu", azaldu zuen.

Bizi zuten egoerak arduratuta, etxean geratzeko deia egiten zien herritarrei. "Oraindino lanera joaten naizenean jende asko ikusten dut kalean. Ogia erosteko aitzakiagaz jendeak egunero irteten du kalera, eta horrela ezin da aurrera egin. Etxean geratu zaitezke, hau ez da broma eta", eskatzen zuen Estebezek.



Italian bizi zen egoera, Irazabalek kontatuta

Herririk herri - DURANGALDEA

> GIZARTEA. Ane Irazabal Elkorobarrutia (Arrasate, 1984) kazetariak Erromatik kontatu zuen koronabirusaren krisia. Gaia kazetaritzaren ikuspuntutik aztertuta, "testuinguru berri batean" geundela uste zuen. "Medikuentzat, agintarientzat eta baita kazetarientzat ere. Egunero aldatzen ari den testuinguru batera egokitzen eta erantzun bat ematen ari gara. Hasieran Italian zegoen sentsazionalismoaren aldeko olatu hori desagertu egin da. Azken urteetan desagertuta egon den zerbitzu publikoa indarra hartzen ari da horrelako testuinguru batean", azaldu zuen.

Italian bizi zuten egoera honela laburbildu zuen: "Fase guztietatik igaro gara. Lehenengo, desinformazioan oinarritutako alarmismo bat zabaldu zen eta horrek txinatarrekiko xenofobia zabaldu zuen. Gero, saiakera bat egon zen krisia txikitzeko. Baina egunak aurrera joan ahala denak kontzientziatu ziren, eta, ondorioz, herrialde osoa gelditu egin zen".

Konfinamendua autismoagaz

Herririk herri- ABADIÑO

> GIZARTEA. Unai Sagastabeitia abadiñarrak 21 urte ditu eta Koldo Sagastabeitia eta Yolanda Azkarate aita-amekin bizi da. Autismoaren Espektroko Nahastea eta Angelman sindromea ditu. Azkaratek konfinamendua zelan bizi zuten kontatu zion ANBOTOri. "Egoera zaila da. Unai oso soziala da. Izaera zabala du, jendearengana gerturatzen da, besarkadak ematen ditu... eta konfinamendu egoera hau zigor bikoitza da berarentzat", azaldu zuen. Zorionez, hainbat eskaeraren ostean, gobernuak kalera irten ahal izateko baimena eman zien konfinamenduko bigarren astetik aurrera. Egoera berezi bat zela ohartarazteko ezgaitasun txartela eramateaz gainera, besoan xingola urdin bat ipintzen zuten.

Etxean "errutina bat" eramaten ahalegintzen ziren. "Ez da erraza entretenitzea. Betiko errutinara bueltatzeko gogoz gaude, baina badakigu itzulera ere gatxa izango dena Unaigaz. Adaptazioa beharko du, beste frustrazio eta gaitasunak desberdinak dira kudeatzeko eta", azaldu zuen Azkaratek.

Durango

KABILDUOSTE

DURANGO KABILDUOSTE

Proiektu berria San Roke auzoan,
erdigunetik pauso batera.

Informazioa

sukia
Zure etxean zaude **Estás en tu casa**

946 46 20 41
www.sukia.com

"Desjabetuok ikasi beharko dugu elkartasunez benetako aldaketak planteatzen"

Herririk herri - IURRETA

> KULTURA. 80ko hamarkadan Ibaizabal aldizkaria sortu zuten Durangon. Joseba Sarrionandia (Iurreta, 1958) egitasmo horren bultzatzaileetariko bat izan zen. Idazle iurretarrak sasoi hartaz, gaur egungo egoeraz eta etorkizunaz gogoeta egin zuen ANBOTOk egindako elkarrizketan.

Ibaizabal aldizkaria sortu zeneko giro kulturala "oso zabala" zela gogoratu zuen. "Jakingura handiko jendea zen, pertsonaren askatasunaz, euskararen errekuperazioaz, memoria historikoaz, munduko arteaz eta abarrez arduratzen zena". Eta hor partidu guztietakoak batzen ziren.

Testuinguru horretan, "ezer barik" hasi behar izan zuten, "lokalik eta dirurik barik; Goienkalen elkartuta egiten genituen gauzak", gogoratu zuen. Hainbat lagunen lankidetzari eskerrak eraman zuten aurrera proiektua, eta Usurbilgo inprenta "merke" bati eskerrak inprimatzen zuten.

COVID-ak munduko ikuskera aldatzeko edo moldatzeko balioko duen galdetuta, "baikor" agertu zen "gauzak ikusteko gai direnekin". Izan ere, "nagusi diren egiturak eta bizimoldeak oker daudela ikusi da berriro, oso modu konkretuan". Aldaketarako erremintak lankidetza eta batzeko gaitasuna dira, Sarrionandiaren ustez. "Desjabetuok, eta motibo batean edo bestean desjabetu ekonomikoak, politikoak edo kulturalak gara gehienok munduan, ikasi beharko dugu noizbait elkartzen. Ez bakoitza bere aldetik, eztabaidatuz eta adostuz baino, elkartasunez benetako aldaketak planteatzen".



Eñaut Aiartzaguena ala Otso? Biak bat

Herririk herri - IURRETA

> KOMIKIA. Eñaut Aiartzaguena marrazkilariaren komikietako pertsonaia da Otso. Biak 'Irribarrez' tira komikoetako pertsonaiak dira. Konfinamendu betebetean sartuta geundela, Otsok adierazi zuen "gogorra" egiten ari zitzaiela, baina Eñautek bere sormena "kutsatu" ziola eta proiektu berrietan murgilduta zebilela. Elkarregaz martxan duten proiektu bat *Otsoren denborapasa koadernoa* da, haurrei bideratutako marrazketa liburua. Batzuetan, umeen marrazkien argazkiak jasotzen dituzte. "Ilusio itzela egiten digu", esan zuten.

Irudimena eta umore ona, jaiak balkoitik balkoira ospatzeko

Herririk herri - ABADIÑO/IURRETA

> JAIAK BALKOITIK. Koronabirusak hankaz gora ipini zuen normaltasuna, baina etxean konfinatuta egonagaitik, herritarrek ez zuten umorea galdu. Irudimena baliatuz, data horietan egokitzen ziren jaiak ospatu zituzten, balkoietan bazen ere. Abadiñoko San Prudentzio jaiak eta Iurretako sanmarkoak dira horren adibide. Abadiñoko Trañaa-Matiena auzoan, Donien Atxa jaietako betiko moduan agertu zen, zegokion egunean. Balkoiak zapiz eta apaingarriz beteta egon ziren, egunetan. Udalak herritarren jai proposamenak jasotzeko bideak zabaldu zituen eta, modu horretara, askoratiko ekimenak irten ziren. Esaterako, Mozorro Egunari eutsi zioten eta argazkiak udaleko webgunean publikatu ziren. Balkoitik balkoira, musika ere ez zen falta izan egun horietan.

Abadiñon ez ezik, Iurretako Oromiño auzoan ere ospatu zituzten jaiak, sanmarkoak. Asko izan ziren balkoi eta atarietan Donien Atxa ipini zuten bizilagunak. Horrez gainera, etxe askotan bakailao errea jan zuten, ohiturari eutsiz. Hain zuzen ere, horixe izan zen jai batzordearen helburua, ekitaldirik tipikoenei eustea. Horrela, jaiak egoerara moldatuta antolatu bazituzten ere, bertso saioak, mozorroek, umeen egunak eta tortilla zein briska txapelketek ez zioten hutsik egin urteroko hitzorduari. Auzotar askok parte hartu zuten ekimenetan, eta antolatzaileak pozik agertu ziren ezohiko jaiek izandako erantzunagaz.

Fermin Gallastegui elorriarrak koronabirusa gainditu zuen

Herririk herri - ELORRIO

> GIZARTEA. Beste gaixotasun batzuengaitik Galdakaoko ospitalean zegoela, Fermin Gallastegui elorriarra koronabirusaz kutsatu zen. Aste bi eman zituen ospitalean, eta, ostean, beste bi etxean isolatuta. Hilabeteko borrokaren ondoren, itxaroten zebilen albistea jaso zuen: negatibo eman zuen koronabirus azterketan.

"Zortez, pazientzia duen pertsona naiz eta hau guztia jasangarriago egitea lortu dut. Ahultasun uneak ere izan ditut, jakina, baina momentu horietan neure buruagaz eta egoeragaz barre egitea lortu dut. Umoreak lagundu dit, garrantzitsua izan da", azaldu zuen Gallasteguik gaixotasuna igaro ostean.

Rodriguez, larrialdietako anbulantzian lanean

Herririk herri - ABADIÑO

> GIZARTEA. Ivan Rodriguez abadiñarrak larrialdietako anbulantzian lan egiten du, eta gainerakoak etxean konfinatuta zeudenean, 12 orduko lanorduak egitea egokitu zitzaion. Sasoi hartan larrialdi abisuen kopurua "bikoiztu" egin zela azaldu zuen. "Egunean 1.000-1.200 abisu egoten ziren eta orain [apirilean] 2.400-2.800 abisuren bueltan gabiltza, gehienak koronabirusagaz lotutakoak". Arriskua guztiz ekiditea ezinezkoa zela azaldu zuen. "Baliteke hanka apurtu duen norbaiten etxera joan behar izatea eta aurretik koronabirusa duen norbaitegaz egon izana. Arriskua hortxe dago beti", esan zuen.

Babes materiala biltzeko ekimena ere hasi zuen sare sozialen bitartez. Itxi beharra izan zuten enpresetan, langileentzat erositako hainbat maskara eta eskularru erabili barik zituzten eta eurak batzen aritu zen, ondoren, ospitaleetan, anbulatorioetan, zahar egoitzetan eta abarretan banatzeko.



Komertzio txikiak gogor pairatu zuen itxialdia, eta elikadura dendak izan ziren salbuespena

Herririk herri - DURANGALDEA

> KOMERTZIOA. Osasun krisiak eta konfinamenduak gogor kolpatu zuten komertzio txikia. Dendarik gehienak eta tabernak itxita egon ziren sasoi hartan, eta salerosketarik barik ez dago diru sarrerarik.

Alex Palacios Dendak Bai elkarteko presidenteak egoeraren erradiografia egin zuen: "Oso egoera latza da denontzat. Alde batetik, ez dugu diru sarrerarik, eta gastu finkoei aurre egin behar diegu: argindarrari, autonomo kuotari, lokalaren alokairuari...".

Esaterako, Atxondoko Akebaso jatetxean ezkontzak hartzeko prest zeuden, baina koarentenak plan guztiak zapuztu zizkien. "Hasieran ez nuen ezer sinisten, ez nuen ezer ulertzen. Baina guretzat kolpe galanta izan da", azaldu zuen.

Koarentenan elikadura dendak izan ziren salbuespena, herritarrek derrigorrez behar zituzten produktuak saltzen zituztelako. "Oso ondo dabiltza lanean", azaldu zuen Palaciosek. "Ordu asko ematen dituzte lanean, askoz ere egoera zailagoan. Alde horretatik, libratu diren bakarrak dira", gehitu zuen.

Mikeldi Tabernako Oier Oarbeaskoak beharrezko ikusten zuen "gauza berriak asmatzea" aurrera egiteko, eta mezu positibo bat bidali zuen: "Denon artean lortuko dugu hau guztia pasatzea. Baina, aurrera egiteko, garrantzitsua izango da denok komertzio txikia gogoan izatea".

"Gu ateak itxita; Amazon salmenta itzelak egiten"

Herririk herri - DURANGO

> LIBURU-DENDA. Hitz liburu dendako Gaizka Olaberria kritikoa zen Amazonegaz eta halako enpresekin; berak liburu denda dekretu bidez itxi behar izan zuen sasoian, salmenta denda erraldoiak liburuak saltzen zebiltzan etxerik etxe. "Lotsagarria iruditzen zait. Amazon salmenta itzelak egiten dabil; bitartean, guk itxita dugu denda. Debekatuta dugu zabaltzea. Hori bai, autonomoen kuota puntualki pasatu digute. Gainera, gure zergak bertan ordaintzen ditugu eta momentu latz hauetan osasun zerbitzuetara doaz. Amazonek, ostera, ez du bertan tributatzen, ez dio gure gizarteari laguntzen", salatu zuen.

Agur Gerediagako Jose Mari Uriarteri

Herririk herri - DURANGO

> KULTURGINTZA. Durangoko Jose Mari Uriarte Astarloa irakasle eta Gerediaga Elkarteko kidea apirilean hil zen, 64 urte zituela. Gerediaga Elkarteko "historikoetariko bat" zen. Argazki zaharrak topatu eta haien atzean zegoen istorioa aztertzea zen bere zaletasuna. "Kultur ondarearen babesa, eskualdeko historiaren ikerketa eta zabalkundea, eta argazki zaharren berreskurapena izan dira bere lan esparru nagusiak", azaldu zuen Gerediaga Elkarteko Jon Irabazalek.

Elkartetik adierazi zutenez, "elkartean ez ezik Durangaldean aurrera atera diren ekimen ugaritan ibili da sustatzaile edo laguntzaile". Bere ikerketak hainbat liburutan batu zituen; beste liburu batzuen artean, Pablo Pedro Astarloari buruzko biografia bat argitaratu zuen.

80ko hamarkadan, Ibaizabal aldizkariaren sortzaileetariko bat izan zen. "Durangaldeko informazioa eta bakoitzaren interesa zabaltzeko sortu genuen", azaldu zuen Uriartek berak Durango 80 dokumentalean.

Elkartasun sarea, behar zutenei maskarak egiteko

Herririk herri - DURANGALDEA

> ELKARTASUNA. Ospitaleek gainezka egin zuten egunetan, bertako langileek material falta izan zuten. Esaterako, maskarak behar zituzten. Egoera ikusita, Durangaldeko hainbat herritako boluntarioek josteko makinak martxan ipini zituzten. Milaka maskara egin zituzten osasun langileentzat. Esaterako, Durangoko, Abadiñoko eta Atxondoko hamazazpi jostunek eta hiru laguntzailek osatutako sareak 2.500 maskara egin zituen egun horietan.

Maskarak egiteko erabiltzen zuten materiala Bilbon mozten zuten, eta taldeko batek ekartzen zuen eskualdera. Ondoren, etxerik etxe egiten zuten materialaren banaketa. Abadiñon, esaterako, udaltzaingoak banatzen zuen. Behin materiala etxean jasota, desinfektatu egiten zuten lehenengo, eta josten hasten ziren ondoren.

Herririk herri - NAZIOARTEA

Aperribai-Plaza familiaren kontakizuna Floridan bizi zuten egoeraren inguruan

> GIZARTEA. Juan Luis Aperribai iurretarra eta Eva Plaza durangarra Floridako Orlando hirian bizi dira 1983tik. Lan kontuek hara eramanda (Juan Luis zestalaria zen), han eraiki zuten bizimodua. Eta han jaiotakoak dira Iker eta Gorka semeak. Juan Luisek koronabirusaren eragina zelan bizitzen ari ziren kontatu zuen. Premiazkoak ez ziren jarduera guztiak itxita zeuden: komertzio txikiak, tabernak, gimnasioak... "Baina ez dituzte eraikuntza arloko lanak geratu. Supermerkatuek ere zabalik jarraitzen dute hemen. Baita burdindegiek ere", esan zuen.

Gutxienez, bizikletan ibiltzeko eta paseoan irteteko aukera zuten. Hondartzen kasu kuriosoa ere kontatu zuten: "Daytonan, esaterako, autoa ia hondartzaraino bertaraino sartu daiteke. Baina hondartza parean etxea izan arren, ezin zara hondartzan ibili".

AEBetan, kasu batzuetan kenduta, osasun kobertura pribatuak egin behar direnez, egoerak "triskantza" eragin zezakeela ikusten zuen. "Pobrea bazara, propietaterik ez baduzu, eta ospitalera bazoaz, artatuko zaituzte. Eta ez dizute ezer kenduko, horregaitik hain zuzen, ez duzulako ezer. Baina asegururik eduki ez eta propietateren bat baduzu, etxea, adibidez, bada hori kenduko dizute".

Sasoi hartan egoera okerragoa bizi zuten New Yorken, baina handik Floridara egunean hegazkin asko heldu zirenez aurreko asteetan, Orlandoko egoerak ere okerrera egin zezakeela uste zuen. "Orain lau aste, egun bakoitzean 100dik gora etorri ziren. Hau da, jendea New Yorketik alde egiten hasi zen", azaldu zuen Aperribaik.

"Aurrera egitea lortu badugu, arloko profesionalen lanari eskerrak da"

Herririk herri - DURANGO

> FAMILIA MEDIKUA. Igotz Aranbarri familia medikua da Arrasateko Osasun Zentroan eta Zornotzako Zelaieta Mediku Zentroan. Azken horretan, diabetesa edo patologia kardiobaskularren bat duten pazienteen kasuak eramaten ditu, besteak beste.

ANBOTOk maiatzean berba egin zuen Aranbarrigaz, eta honek osasun krisian familia medikuek egindako lana azpimarratu gura izan zuen. "Aurrera egitea lortu badugu, arloko profesionalen lanari eskerrak izan da. Osasun sistematik jarritako baliabideak eta babes neurriak garrantzitsuak dira, baina egunero lanean aritu diren pertsonek dute meriturik handiena, eta talde lana goraipatzekoa da; txandak kudeatzen dituzten pertsonen, erizainen, medikuen, garbitzaileen eta osasun zentroetan lankide diren guztien talde lanari eskerrak lortu dugu aurrera egitea", adierazi zuen familia mediku durangarrak.

Gainera, aitortu zuen "medikuak 'superman' edo 'superwoman'" direla uste duela sarritan gizarteak. "Gu ere pertsonak gara eta sufritu egiten dugu. Esango nuke profesionalok ere pandemia sasoiak eragindako antsietatea, depresioa edo arlo horretako bestelako patologiak jasango ditugula aurrerantzean", jarraitu zuen durangarrak.

Bestalde, pandemia sasoian eta baita pandemiatik kanpora ere, sarritan psikologo lana egin behar izan dutela aitortu zuen Aranbarrik: "Jendeak azalpenak behar izaten ditu, berba gozo batzuk". Horrez gainera, profesionalei ere psikologo profesionalen laguntza eskaintzea "lagungarria" izango zela esan zuen Aranbarrik.

"Gizonezko bat zarataka hasi zitzaidan, etxera joateko esaten zidan"

Kirola - DURANGO

> KIROLA. Konfinatuta egon eta gero, kirolari profesionalak beharrera itzuli ziren maiatz hasieran, baimen berezi batekaz. Irene Loizate durangarra horietariko bat zen, baina, nahiz eta baimena izan, herritarren eta udaltzainen marmarrak entzun behar izan zituen. "Baimena izan arren, lehenengo egunean hainbat arazo izan nuen. Astolarako bidegorrian, udaltzain batek ez zidan Abadiñora sartzen utzi. Profesionala nintzela esan nion, baina handik inor ez zela pasatuko esan zidan", azaldu zuen Loizatek.

Hori ez zen izan durangarrak izan zuen arazo bakarra. Gizonezko bat zarataka hasi zitzaion autotik. "Etxera joateko esan zidan", gaineratu zuen triatleta durangarrak.

Abadiñon baserri bi bota dituzte AHTa egiteko

Herririk herri - ABADIÑO

> AHT. AHTko lanak direla-eta, hilabeteko epean baserri bi bota zituzten Abadiñon. Lehenengoa, Mendilibar-erdikoa, maiatzaren 15ean hasi ziren botatzen. Bigarrena ekainaren 9an eraitsi zuten, Goxentziagirre baserria.

Mendilibar-erdikoa baserriak orain 500 urte inguruko aztarnak zituen. Bertako baserrian jaiotako Roberto Arteagak ANBOTOri aitortu zionez, "inpotentzia handia" sentitu zuen baserria botatzen zebiltzala jakin zuen momentuan.

Hala ere, desjabetze prozesua orain hamar urte baino gehiago izan zutela adierazi zion Arteagak ANBOTOri. "Bagenekien noizbait botako zutena, egun hau ailegatuko zena. Gainera, Atxondon ere lanak aurrera doazela ikusita, imajinatzen nuen halako zerbait etorri zitekeela. Izan ere, hauxe zen Abadiñon egitea falta zen tarteetariko bat ", azaldu zuen Arteagak.

Atxondo-Abadiño tartean, AHTaren obrek ez dute etenik izan koronabirusaren krisian. Maiatzaren 12an Atxondoko Maisuen etxea eraitsi zuten eta AHTrik Ez plataformak hainbat mobilizazio egin zituen herrian. Mobilizazio horietan, eskualdeko ehunka lagun batu ziren Atxondon.

Pilotaren munduak Kepa Arroitajauregi iurretarra agurtu du

Herririk herri - IURRETA

> KEPA ARROITAJAUREGI. Pilotaren munduak kolpe handia jaso zuen maiatzean Kepa Arroitajauregiren heriotzagaz. Arroitajauregi gazterik joan zen, 48 urtegaz, baina pilotaren alde egindako lan nekaezinak luzaroan iraungo duen lorratza utzi zuen.

Arroitajauregi pilotaria zela, urte bian profesional aritu zen, eta bere pasioa ogibide bihurtu zuen gero. Esaterako, Durangaldeko pilotari askok bere lanari zor diote trinketean duten maila. "Pilotarioi aholkuak eta animoak ematen ibili da beti, modu altruistan", gogoratu zuen Asier Aspuru pilotari abadiñarrak. Euskal Herriko Pilota Federazioan ere aritu zen, esku pilota sustatzen. "Oso pertsona positiboa izan da eta umeekin oso hartu-eman ona izan du", adierazi zuen Txaber Zabala Durangoko pilota eskolako arduradunak. Munduko Pilota Batzarreko arduradun moduan, pilota mundura zabaltzeko ahalegin handia egin zuen. "Boliviako kirolari emandako laguntzagaitik betirako gaude esker oneko zugaz", adierazi zuen Boliviako Pilota Federazioak sare sozialetan.

Hedabideetan ere lan handia egin zuen iurretarrak pilota sustatzeko. Besteak beste, ERAZeko langilea eta ANBOTOko kolaboratzailea izan zen.

Irailean, pilotaren munduko hainbat eragileren proposamenari eskerrak, Iurretako Olaburu frontoiari Kepa Arroitajauregiren izena ipintzea erabaki zuten. Gainera, bere oroimenezko txapelketa antolatu zuten trinketean.

Pandemiak Senegalen harrapatu zuen Larrinaga

Herririk herri - ABADIÑO

> SENEGAL. Koronabirusaren krisiak Senegalen harrapatu zituen Itziar Larrinaga abadiñarra eta bere familia, San Luis inguruan. Han egon ziren etxera noiz itzuliko zain. Larrinagak Senegaletik azaldu zuenez, 20:00etan etxeratzeko agindua zegoen. Abadiñarrak kontatu zuen ume Talibeei laguntzeko elkarte batek diru bilketa bat hasi zuela, ume horiei janaria banatu eta laguntzeko. Senegalen 100.000 ume Talibe inguru daude.

1980an euskaldunek Everest konkistatu zuten; Kike de Pablo espedizio hartako kidea zen

Kirola - DURANGO

Herri oso bat bultzaka zuela, Martin Zabaleta alpinista 1980ko maiatzaren 14an heldu zen Everesteko tontorrera. Munduko tokirik garaienean ikurrina lau haizetara astintzen zuten lehenengo aldia izan zen. Euskaldunez osatutako taldeko lanari eskerrak heldu zen Zabaleta gailurrera. Espedizio hartako kidea izan zen Kike de Pablo. Zamoran jaiotako alpinista Durangon bizi da 1980tik hona.

Alpinistak azaldu zuenez, arriskuz beteriko igoera izan zen. Esaterako, tontorrera heldu eta gero, bueltako bidean, Zabaleta eta beragaz zihoan Pasang Temba sherpa ezin izan ziren kanpamendura heldu. Eguraldia eskasa zen eta oso nekatuta zeuden. Ilundu egin zitzaien eta kanpoan eman behar izan zuten gaua. Kike de Pablok eta gainerako kideek walkie-talkie bidez eurei animoak ematen igaro zuten gaua. "Jaitsieran oso nekatuta zeuden biak, ezin zuten gehiago, botilako oxigenorik barik geratu ziren eta ilundu egin zitzaien. Hantxe eman behar izan zuten gaua. Eguna zabaldutakoan martxan ipini ziren eta berba egiten nion: 'Aupa, Martin, animo, orain pauso bat, orain beste hanka'", esan zuen Kike de Pablok.

Biharamunean, Zabaleta eta Pasang kanpamendura heldu zirenean, gainerakoek beste saiakerarik ez egitea erabaki zuten. "Martin bizirik heltzea miraria izan zen. Beraz, besteok ez irtetea erabaki genuen", jarraitu zuen alpinistak.

Baina helburu nagusia lortuta zegoen.Euskaldunek Everest konkistatu zuten.

Gregorio Urionaguena 'Aitxu' dantzaria hil da

Herririk herri- ABADIÑO

> DANTZA. Gregorio Urionaguena Arriaga 'Aitxu' 1917an jaio zen, Lebarioko Ola baserrian, eta 2020ko maiatzaren 12an hil zen, 103 urtegaz.

Dantza izan zen bere pasioa. Aurreskulari trebea izan zen hainbat herritako plazetan. 6 urte zituela, 1923an, 'Aitxu'-k Salbadoren dantza egin zuen lehenengoz. Gerra zibila bizi izan zuen. 20 urtegaz Bizkargiko erresistentziara joan zen, frontera; handik Sollubera, Santo Domingoko aldatzera, Bilboko erreka eta zubiak defendatzera. Portugaleten, Gallartan, Gasteizen eta Urduñako seminario zaharrean ere ibili zen gerra sasoian.

2019ko abuztuan, auzokideek omendu egin zuten Gerediaga auzoko jaietan, Salbadore egunean.

"TOKIKOMeko hedabide guztion trafikoa batuta, %97ko igoera izan dugu"

Herririk herri - DURANGALDEA

> ANBOTO. Tokiko hedabideek kezkaz begiratzen zioten etorkizunari maiatzean. "Koronabirusaren krisiak sektore guztiak kolpatu ditu eta hedabideena ez da salbuespena izan", adierazi zuen Jone Guenetxea ANBOTOko zuzendari eta Tokikomeko presidenteak. "Abuztura bitartean, 2,5 milioi euroko galera izango dugula aurreikusten dugu toki komunikabideok", esan zuen Guenetxeak. Pandemia sasoian tokiko hedabideek izandako audientzien igoera da txanponaren beste aldea. "TOKIKOMeko hedabide guztion trafikoa batuta, %97ko igoera izan dugu iazko sasoiagaz alderatuta", esan zuen.

Egin zaitez **Anbotoren Lagun,** eta atera etekina txartelari!

lagunak@anboto.org
Tel: 946 816 558

ANBOTOREN LAGUNAK

Lekuan, lekuko lagunak

*Babestu proiektua urtean 30 euroren truke

Anboto Komunikabideak @anboto @anbotokomunikabideak

Koarentenaren ondoren, bizikleta zaharrei hautsa kendu diete Durangaldean

> BIZIKLETA. Itxialdiaren osteko deseskalatze prozesuan, lagun asko hasi ziren berriro ere bizikleta erabiltzen. Eskualdeko bizikleta dendak bisitatzea baino ez zegoen horretaz jabetzeko. ANBOTO Oskar Elorriaga Traña-Matienako Elorriaga bizikleta-dendako jabeagaz eta Iurretako Undarri Bike&Snow dendako Aitor Undagoitiagaz egon zen.

"Luzaroan etxean egon eta gero, jendea aire libreko kirola egiteko gogoz dago eta bizikleta modu erraza da horretarako. Azken finean, etxean hainbeste denbora eman eta gero, naturagaz gozatzeko gogoa du jendeak, eta urte askoan bizikletan ibili barik egon eta gero, aspaldiko sentsazioak berreskuratzen dabiltza", adierazi zuen Oskar Elorriagak.

Bestalde, Aitor Undagoitiak adierazi zuen Durangaldean "beti" egon dela bizikletan ibiltzeko zaletasuna. "Beti egon da bizikletarako zaletasuna, baina jendeak ez zuen erabiltzen. Hori bai, konfinamenduan, antza, jendea aspertu egin da eta aspaldian erabili bako bizikletekin gogoratu dira", esan zuen.

Gorka Ganso, pandemia-egoerara moldatzen

Kultura - DURANGO

> KLOWNA. Pandemiak hainbat artistaren etorkizuna baldintzatu du, baita Gorka Gansorena ere. Osasun krisiagaitik hainbat lan bertan behera geratu zitzaizkien, baina beste batzuk ere sortu zituzten konfinamendua arintzeko asmoz. Horren adibide da 'Madriguera' websaila. "Hasieran, egoera berria asimilatu behar izan genuen. Sare sozialak bideoekin-eta bete zirela ikusi genuen, baina guk denbora gehiago behar izan genuen guztia ulertzeko, egoeraz kezkatzeko, haserretzeko eta abar, gure klown iragazkitik pasatu ondoren gizarteari bueltatzeko", azaldu zuen Gansok.

Pandemia sasoian emankizun ugari bertan behera geratu zitzaizkien arren, Gorka Gansok lanean jarraitu zuen eta urrian 'Alpha' klown ikuskizuna estreinatu zuen. "Alpha ikuskizun egokia da bizi dugun egoera honengaitik, beldurra delako gai nagusia, beldurraren birusa ere hedatu egin delako", azaldu zuen

"Cannes zigilua edukitzea oso garrantzitsua da"

Kultura - ELORRIO

> ZINEA. Cannesko zine jaialdi entzutetsuaren 73. edizioa maiatzaren 12tik 23ra ziren egitekoak. Bertan estreinatu behar zuten Irune Gurtubai elorriarrak ekoitziriko 'Linbo', baina jaialdia bertan behera geratu zen. "Canneskoa erreferentziazko jaialdia da guretzat, eta hasieratik zen gure helburua. Esan zigutenean, egundoko poza hartu genuen. Apur bat gazi-gozoa ere bada, festibala bera ez delako egingo, baina Cannes zigilua edukitzea garrantzitsua da, eta pelikularentzat oso baliagarria izango da", azaldu zuen Gurtubaik.

Durango Euskal Herriko LGTB mugimenduaren sorburuan

Herririk herri - DURANGO

> LGTB. Durango funtsezko herria da Euskal Herriko LGTB mugimenduaren historian. Bertan ernaldu zen Euskal Herriko Gay-Les Askapen Mugimendua, 1976an. ANBOTOk Imanol Alvarez Euskal Herriko LGTB mugimenduko militanterik ezagunenetarikoagaz berba egin zuen ekainean. "Askok ez dute istorioa ezagutzen. Pentsatzen dute LGTB mugimenduak hirietan sortu ohi direla, eta, horrenbestez, Euskal Herrikoa Bilbon sortu zela. Erakundetu Bilbon erakundetu zen, bai, baina Durangon sortu zen asmoa", azaldu zuen Alvarezek.

"Ez da turismoan pentsatzeko urtea"

Herririk herri - GARAI

> TURISMOA. Jasone Gezuraga (Larrabetzu, 1974) Garaiko landetxeko arduraduna da. Gezuragak itxialdia zelan bizi izan zuten eta etorkizuna zelan ikusten zuen kontatu zuen. "Landetxea martxoaren 16an zarratu genuen. Erreserbak jaisten hasi ziren, eta zerbitzu minimoak eskaini ditugu gerora. Ingurura lan egitera etorri diren beharginak etorri izan dira aterpetxera", azaldu zuen landetxeko arduradunak maiatzean.

Aurtengoari eutsi, eta bitartean datorren urtekoa lantzen hasi. Gezuragaren esanetan, horixe da turismoak orain behar duen ikuspegia. Durangaldean turismoari bide berriak zabaldu behar zaizkiola dio. "Aurtengoa ez da turismoan pentsatzeko urtea izango. Durangaldeko turismoari eutsi gura badiogu, aurtengoa barik datorren urtekoa ondo lantzeari ekin beharko diogu. Turismo lasaia izango da aurtengoa, familia girokoa. Datorren urtean eskaintza berriak prestatu eta atzerriko turismoa erakarri beharko dugu", adierazi zuen Garaiko Landetxeko arduradunak.

"Hamarkadak daramatzate zinea akabatu guran"

Kultura - DURANGO

> ZINEA. Itxialdi sasoitik zarratuta egon eta gero, Durangoko Zugaza zinemak ekainaren 5ean zabaldu zituen berriro ateak. Zine aretoko Emilio Ferreras arduradunak azaldu zuenez, hainbat segurtasun neurri hartuta zabaldu zuten zinema. "Aire sisteman lanpara berezi batzuk ipini ditugu, aireko birusak kentzeko. Garbiketa ere indartu egin dugu. Bestalde, seinaleak ipini ditugu sarrera-irteerak markatzeko", esan zuen.

Zinemako arduraduna pozik egon zen irekierak izandako erantzunagaz. "Normaltasun berriko lehenengo asteburua lasaia izan da, aurreikusitakoaren araberakoa. Gainera, jendeak ondo erantzun du. Etorri direnak bazekiten zer egin, barneratuta zuten eta", jarraitu zuen arduradunak.

Zinearen sektoreagaitik galdetuta, "sektorea geldi" zegoela aitortu zuen, eta zinemek COVID-19aren krisia gainditu ahalko dutela uste duela azaldu zuen. "Hamarkadak daramatzate zinea akabatu guran. Gu hasi ginenean, VHSaren booma gainditu genuen. Gero, plataformak etorri dira, eta hemen jarraitzen dugu. Modu horiek oso ondo daude gauza batzuk ikusteko, baina film zehatz batzuk zineman ikusi gura ditugu", amaitu zuen.

Kultur egitarau alternatiboak uda girotzeko

Herririk herri - DURANGALDEA

> JAIAK. Uda giroaren eskutik heldu ohi da jai giroa Durangaldera. Hala ere, koronabirusak eragindako krisiak jaiak bertan behera uztera behartu zituen hainbat udal eta jai batzorde. Durangaldean, esaterako, Mallabiko jaiak ospatu zituzten, eta Zaldibarren eta Atxondon kultur egitarau alternatiboa osatu zuten. Gainerako herrietako jaiak, ostera, bertan behera geratu ziren.

Mireia Gandarias, puntako arkitektoa

Herririk herri - DURANGO

> ARKITEKTOA. Energiaren sektorean Bizkaia nazioarteko erreferentziagune bihurtu guran, Energy Itelligence Center eraikiko dute. Mireia Gandarias durangarra puntako diseinu hori diseinatzen ibili da. Gandariasen berbetan, euren arkitektura "ez da oso estranbotikoa, eta funtzionalitatea lehenesten" dute.

22 urteren ondoren, Garai Mankomunitatean

Herririk herri - GARAI

> POLITIKA. Garaiko Udalak 1998an Durangaldeko Mankomunitatetik irtetea erabaki zuenetik, herriak ez du ordezkaririk izan bertan. Baina 22 urteren ondoren, ekainean, udalak Durangaldeko Mankomunitatean sartzea erabaki zuen. Bertako erabaki organoetan Garai sartzea onartu zuten eta, harrezkero, garaitarrek ordezkari bi dituzte bertan.

Hori horrela, ekainetik hona Erramun Osa gaur egungo alkatea da ordezkari horietariko bat (Eusko Alderdi Jeltzalea), eta Ane Etxeita (Herriko Taldea) bestea. Horrez gainera, Mankomunitateak eskaintzen dituen hainbat zerbitzu ere jasotzen dituzte Garaiko herritarrek.

Teknikariok sindikatua, teknikariak babesteko

Kultura - DURANGALDEA

> TEKNIKARIOK. "Ikuskizunetan oihalaren atzealdean eta beltzez jantzita daudenak kontuan hartzeko", Teknikariok sindikatua jaio zen. Besteak beste, kulturgintzara eskainiko diren diru laguntzetan teknikariak ere kontuan hartzeko eskatu zuen kolektiboak. Hainbat agerraldi egin zituzten eskari horiek plazaratzeko.

"Gizarte egoista batean bizi gara"

Herririk herri - DURANGALDEA

> GORRAK. Koronabirusak hainbat oztopo ekarri dizkio lehendik ere arazoak zituen gorren komunitateari. Maskara da horietariko bat, baina badira pandemia baino lehenagotik datozen beste hainbat oztopo ere. María Vazquez (Abadiño, 1994) Euskal Gorrak Federazioko kidea da eta ANBOTOko kazetariak egindako galderei María Sánchez-Guardamino interpretearen laguntzagaz erantzun zien ekainean. Vazquezek azaldu zuenez, gizarteak gorrak ahaztu dituen sentipena du. "Esatea apur bat gogorra bada ere, iruditzen zait gizarte egoista batean bizi garela. Bakoitzak bereari begiratzen dio. Jende askok ez du gorra den inor ezagutzen, eta, jakina, gorrak aintzat ez hartzea dakar horrek. Entzule direnak gorren bat ezagutzen dutenean, orduan konturatzen dira ditugun oztopo komunikatiboez, eta horiek apurtzeko borondatea agertzen dute", azaldu zuen abadiñarrak.

Horrez gainera, osasun krisialdiak gorrei hainbat oztopo eragin dizkiela esan zuen, eta horietariko batzuk zerrendatu zituen. "Informazio, protokolo eta segurtasun neurri guztiak entzuleak direnen neurrira eginda daude. Gorrak garenok edo bestelako ezgaitasunen bat dutenak ez dira aintzat hartzen. Beste arazo handi bat telefono mugikorra da. Koronabirusari lotutako osasun arreta guztia telefono bidezko komunikaziora bideratu da, baina zer egin dezakegu gorrak garenok? Horren aurka ere bagabiltza borrokan", jarraitu zuen.

Gorren komunitateari zelan lagundu ahal zaion esanda, zer behar duten galdetuta lagundu ahal zaiela esan zuen María Vazquez abadiñarrak. "Gure kolektibo barruan aniztasun handia dago. Ez gara talde homogeneo bat. Eta laguntzeko biderik errazena lehenengo eta behin zer behar dugun galdetzea da. Eta ez dadila entzuleen kolektiboa bakarrik aintzat hartu. Pandemia honetan ez dago batasunik guretzat. Entzuleen taldea batuta dago. Gorrena ere bai. Baina ez dago talde bien arteko integraziorik. Non dago intregazioa?", gaineratu zuen.

Bestalde, Euskal Gorrak Federazioko kideak eurengana hurbiltzeko deia egin zien herritarrei. "Gugana beldurrik barik etortzeko esango nieke herritarrei. Zeinu-hizkuntza ikasteko. Etorri, galdetu, komunikatu. Apurka-apurka lortuko dugu. Gorrok pertsona indartsuak gara eta elkarri lagunduta asko ikasi dezakegu", amaitu zuen Vazquezek.

"Uneibi dendan oso zoriontsua izan naiz"

Akuilua - ABADIÑO

> DENDARIA. Mari Carmen Aldazabalek Traña-Matienako eta inguruko herrietako ume eta gaztetxoen ahoak gozatu ditu urte askoan. Baina ekainean, 37 urteren ondoren, Uneibi gozoki-dendako pertsiana jaitsi zuen. "Uneibin oso zoriontsua izan naiz eta pena handiagaz itxi dut. Hainbat momentu atzean utzi behar ditut", aitortu zuen Aldazabalek.

"Tokiko produktuak gehiago estimatu dira"

Herririk herri - ZORNOTZA

> LEHEN SEKTOREA. Konfinamenduan, Zornotzako herritarrek herriko hainbat ekoizlerengana jo zuten. "Jendea herrian bertan egon da konfinatuta, eta horrek eskuragarriago ipini ditu tokiko produktuak. Gehiago estimatu dira", adierazi zuen Kepa Agirregoikoa Zornotzako ekoizleak.

Agirregoikoak gaztandegia du Etxanon. 'Errotik' izenpean, jogurta eta gazta egiten ditu han. Produktuak bezeroei zein dendei helarazten dizkie, baina Etxanora bisitan doanak ere erosi ditzake. Horrez gainera, hainbat eskola ere hornitzen ditu jogurtekin, eta itxialdi sasoian gorabehera handia nabaritu zutela azaldu zuen. "Izan dugun gorabeherarik handiena eskoletan izan da. Zornotzako Andra Mari, Karmelo eta Lauaxeta ikastetxea eta Markina-Xemeingo Bekobenta eskola jogurtez hornitu izan ditugu, baina zarratuta egon direnez, hor igarri dugu gorabehera nagusia", azaldu zuen. Egoera horren aurrean, Etxanokoak etxerik etxeko banaketa egin zuen.

"Jendeak kontzientziatuta jarraitzea eta ekoizleen lana baloratua izatea" gustatuko litzaiokeela azaldu zuen Agirregoikoak.

Mercadona supermerkatuen kateak lehenengo pausoak eman ditu Iurretan saltoki handi bat zabaltzeko

Herririk herri - IURRETA

> EKONOMIA. Durangaldean bere lehenengo merkataritza gunea zabaltzeko emandako pausoen berri eman zuen Mercadonak uztailean. Supermerkatu kateak ANBOTOri jakinarazi zionez, behin lizentzia eskatuta Ura Agentziaren eta Bizkaiko Foru Aldundiko Azpiegitura Saileko baimenen zain dago. Mallabiena inguruko 7. zenbakian egongo da Mercadona, beste hainbat merkataritza guneren inguruan, eta 8.000 metro koadroko lekua hartuko du. Administrazioen aldetik jaso beharreko lizentzia eta baimenen fase honetan, oraingoz ez dute obrak hasteko data zehatzik eman.

Iñaki Totorikaguena alkateak azaldutakoaren arabera, udalak ekainaren 10ean eman zion obra lizentzia Mercadona enpresari, eta ekainaren 15ean jarduera eta irekiera lizentzia tramitatzen hasi ziren.

Merkataritza gune berria zabaltzeak komertzio txikia kaltetuko duela nabarmendu zuen EH Bilduk. "Mercadona kateak baimena eskatu du Iurretan saltoki handi bat zabaltzeko, eta EAJk, alkatearen dekretuz, horretarako baimena eman die", salatu zuten. "Azken hileetan pairatu dugun konfinamenduak bereziki gogor kaltetu ditu komertzio txikiak, eta hauei laguntzeko neurriak proposatu eta adosten jardun dugu udalean", gaineratu zuten. Alkateak azaldu zuen, baldintzak betetzen baditu udala Mercadonari lizentziak ematera "behartuta" dagoela, eta udal gobernuak hainbat ekimen ipini dituela martxan tokiko komertzioa indartzeko.

Beharrizanak asetzen laguntzeko sarea

Herririk herri- ZORNOTZA

> ELKARTASUNA. Zornotzako Elkartasun Sareko kideek herriko 150 bat pertsonari lagundu diote elikagaiak eta higiene produktuak astean behin banatuta. "Arreta pertsonala da gurea; lehenengo eskutik ezagutzen ditugu laguntzen diegun herritarren beharrizanak", esan zuten taldeko kideek. Gaineratu zutenez, "familiak dira gehienak, baina badago bakarrik bizi den herritarren bat edo beste ere". Elikagaiak hainbat bidetik jasotzen dituzte. Herritarren ekarpenaz gainera, Zornotzako komertzioen eta elkarteen dohaintzak jasotzen dituzte. "Xiberu tabernak, esaterako, esnea ematen digu astero, eta Usubiaga okindegiak ogiz hornitzen gaitu. Herriko arraindegiak eta harategiak ere primeran erantzuten dabiltza", adierazi zuten.

Edozelan ere, egoera "geroago eta txarragoa" dela onartu zuten Elkartasun Sareko kideek. Hasieran elkartasun uholdea izan zuten, baina, diotenez, hori apaldu egin da, "jendeari ezin zaiolako egunero dirua edo hornidura eskatu".

"Bakoitzak bere arazoak ditu", esan zuen Lauzirikak. Hainbat modu bilatzen dabiltza egoerari eusteko eta herritar gehiagorengana heltzeko.

Lander Olaetxea erdilari abadiñarraren UD Logroñes taldeak Bigarren Mailara igo du

Kirola - ABADIÑO

> FUTBOLA. Urteetan Bigarren B Mailan jokatzen egon eta gero, UD Logroñesek Bigarren Mailara igotzea lortu zuen uztailean. Lander Olaetxea abadiñarra Logroñeseko jokalaria izanik, ospakizun horren parte izan zen.

La Rosaleda (Malaga) futbol zelaian jokatu zen partiduan, erdilaria titularra izan zen. Castello taldearen aurka lortutako garaipenagaz "oso pozik" zeudela azaldu zuen abadiñarrak. UD Logroñesen eta Castelloren arteko partidua oso bizia izan zen. Penaltietan erabaki behar izan zuten zein taldek lortuko zuen igoera. Erdilari abadiñarrak "sufrimendu handiagaz" bizi izan zuen penaltien unea. "Igoera horren parte izatea oso berezia da niretzat".

"Ez dugu uste inoiz honelako egoera batean egongo garenik"

Herririk herri - ABADIÑO

> ELKARTASUNA. Jateko eske elikagaien bankura jo behar izan duten herritarren kopuruak nabarmen egin du gora COVID-19ak eragindako pandemia hasi zenetik. Bizkaiko elikagaien bankuak uztailean emandako datuen arabera, martxo hasieran 25 bat mila herritarri laguntzen zieten. Kopuru hori 33.000ra pasatu da ekainaren amaieran: hau da, eskariak %32 hazi dira, argitu zutenez. Eta Durangaldea ez da salbuespena. Eskualdeko hainbat herritan ia bikoiztu egin da eskaria. ANBOTOk elikagaien bankura jo behar izan duen eskualdeko herritar bategaz berba egin zuen.

Elkarrizketatuak gurago izan zuen bere nortasuna ezkutuan gorde, eta 'Irene' izenagaz aurkeztu zuen bere burua. "Jatekoa eskatzeak lotsa ematen du, baina beti izan dut argi lapurretan egitea baino gurago dudala eskatu. Etxean jatekoa behar genuen", nabarmendu zuen. "Ez dugu uste inoiz honelako egoera batean egongo garenik, baina hau edozeini gertatu dakioke", zioen Irenek uztailean egindako elkarrizketan.

Pandemiaren erdian goitik behera aldatu zitzaion etxeko egoera ekonomikoa Ireneri. "Bolada batez, nire langabeziagatiko prestazioa izan da etxeko diru sarrera bakarra, 300 euro hilean", esan zuen. Egoera horretan, ezinbestean, elikagaien bankura jo behar izan zuten. Arazo hori behar den moduan islatuta dagoen galdetuta, arazo honekiko kontzientzia badagoela uste du. "Baina ez daukagu barneratuta hau edonori gertatu dakiokeela", gaineratu zuen.

"Eskerrak promozio lana eginda geneukala"

Kultura - MALLABIA

> MUSIKA. *Limones en invierno* hirugarren diskoa agertokietan aurkezteko bira hastear zuela harrapatu zuen pandemiak Izaro musikaria. Harrera aparta izan du azken lan horrek eta 2020a Izaroren urtea izan behar zen. Euskal Herriko areto nagusietariko batzuetatik egitekoa zen birarako sarrera guztiak salduta zeuden. Baina koronabirusak dena eten zuen. Udazkenera atzeratu behar izan zuen bira. Konfinamendua "deskonektatzeko" baliatu duela azaldu zuen. "Eskerrak promozio lana eginda geneukala; horrek salbatu du *Limones en invierno*", adierazi zuen.

Informazio puntu berria zabaldu dute

Herririk herri - OTXANDIO

> TURISMOA. Otxandioko Udalak informazio puntu bat zabaldu zuen uztailean, udan herrira doazen bisitariei herrian dagoen askotariko eskaintzaren berri emateko. Udako hiru hilabeteetan egon da zabalik turisten zerbitzura. Udalak beren beregi horretarako kontratatutako Mikel Sanchez otxandiarrak eskaini zuen zerbitzua. Azkenaldian herrira doazen bisitarien kopurua hazi egin delako ipini dute martxan zerbitzu berria. Bisitarientzat baliagarria izan daitekeen informazio guztia eskuratu ahal izan du bertaratu denak: herri inguruan naturaz gozatzeko dauden aukerak eta bertako interes-guneak, besteak beste. Bertako komertzioen, ostalaritzaren, ostatuen eta antzeko kontuen gaineko informazioa ere eskuratu ahal izan da.

Durangaldean EAJk irabazi ditu Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak

Erreportajea - DURANGALDEA

> POLITIKA. Uztailean izan ziren Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan, EAJk 2.010 botoko aldea atera zion EH Bilduri Durangaldean. Jeltzaleek irabazi zituzten hauteskundeak, baina harekiko aldea txikitu du EH Bilduk, boto portzentajea handituta. Elkarrekin Podemos-Ahal Dugu taldea hirugarren indar politikoa izatetik laugarren tokira pasatu da, PSE-EEren mesedetan.

EAJk garaipena lortu zuen Durangon, Zornotzan, Mañarian, Berrizen, Garain eta Iurretan. EH Bildu, ostera, zerrendarik bozkatuena izan zen Abadiñon, Elorrion, Atxondon, Mallabian, Otxandion, Izurtzan eta Zaldibarren. Orain lau urteko datuekin alderatuta, koalizio subiranistak lau herri gehiagotan lortu du garaipena (2016an Otxandion, Elorrion eta Mallabian lortu zuen). PSE-EEk, bestalde, orain lau urteko emaitza berdintsuei eustea lortu zuen, baina hirugarren alderdirik bozkatuena izan zen, Elkarrekin Podemosek izandako higaduraren ondorioz. Talde moreak 2016an baino 2.000 boto inguru gutxiago jaso zituen uztailean izan ziren hauteskundeetan. Laugarren indar politikorik bozkatuena izan zen.

Equo Berdeak talde ekologistak 299 boto lortu zituen Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan, eta Vox alderdi ultraeskuindarrak 332 boto.

Jeltzaleak garaile izan ziren Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, hiru eserleku gehiago lortuta; guztira, 31. EH Bilduk lau eserleku gehiago lortu zituen eta Elkarrekin Podemos-Ahal Duguk bost eserleku galdu zituen. PSE-EEk eserleku bat gehitzea lortu du eta PPk beherako joeragaz jarraitzen du.

Ekuru taldeak disko berria aurkeztu du

Kultura - DURANGALDEA

> MUSIKA. Ekuru taldeak izen bereko diskoa aurkeztu zuen Plateruena kafe antzokian, uztailean. Apirilean zen *Ekuru* jendaurrean aurkeztekoa, baina koronabirusaren agerpenak dena hankaz gora ipini zuen. Diskoa jendaurrean aurkezteko ia esperantzarik ez zuten eta taldekideak pozik agertu ziren sortutako aukeragaz.

Iker Unzueta, Durangoko Kulturaletik Amorebieta futbol klubera

Kirola - ABADIÑO

> FUTBOLA. "Bigarren B Maila profesionalen liga bat da eta 21 urtegaz hor aritzea ametsa errealitate bihurtzea da". Iker Unzuetak berba horiekin laburbildu zuen erronka berriaren aurrean sortutako sentipena. Durangoko Kulturaletik joan da eta Amorebieta futbol klubagaz fitxatu du aurreralari abadiñarrak. Hirugarren Mailatik Bigarren B Mailarako saltoa eman du.

Amorebieta klubaren interesa nahikoa ezustekoa izan da Unzuetarentzat. "Egia da ondo jokatzen ibili naizela eta oso gustura sentitu naizela zelaian, baina ez dut gol askorik sartu. Uste nuen nire zenbakiak ez zirela horrelako talde baten interesa erakartzeko modukoak", azaldu zuen abadiñarrak. "Harritu egin nau Bigarren B Mailako talde batek nigan konfiantza hori jartzeak", gaineratu zuen. Pozarren eta duen guztia emateko prest agertu zen jokalaria. Bere ustean, Bigarren B Maila ez da "joko dotoreegia" ikusten den liga bat, "baina taldeek ondo dakite zelan jokatu eta zer egin une bakoitzean".

Munarri gaztetxea jaio da Forjaren jauregian

Herririk herri - ZORNOTZA

> GAZTETXEA. Zornotzako Gazte Asanbladak Forjaren jauregia okupatu zuen uztailean, eta Munarri gaztetxea sortu du bertan. "Gazteok espazio propio bat eraikitzeko beharrizana ikusi genuen, proiektu sozial bat garatu eta herrian elkartasuna eta elkarzaintza sustatzeko. Herrian ezaguna den eraikin bat aukeratu dugu horretarako", azaldu zuten Zornotzako Gazte Asanbladako kideek.

Bidea egiten hasi berria izanik, Gazte Asanbladak bere burua herritarren aurrean aurkezteko ere aprobetxatu zuen. "Helburu soziala" duten ideiak garatu gura dituztela azaldu zuten, autogestioan oinarrituta. "Auzolanean lan egitea posible dela uste duen oro babestuta eta indartuta sentitu dadin sortutako espazioa da, herriaren eskura dagoena", nabarmendu zutenez.

Zornotzako kolektiboak Gazte Asanbladagaz batera dabiltza koordinatzen, egon litezkeen lan sinergiak sortzeko. Horietariko bat etxebizitzaren arazoa da, Asanbladako kideek azaldu zutenez.

Sahararrak ezin izan dira etorri

Herririk herri - DURANGALDEA

> ELKARTASUNA. Tindufeko (Aljeria) kanpalekuetatik Euskal Herrira etortzen diren ume sahararrek aurten ezin izan dute bidaiatu. Ume sahararrak ezin izan dira Durangaldera etorri. Rio de Oroko kideek aniztasun funtzionala duten 12 umerentzat kanpamendua antolatuta zuten Izurtzan, eta beste 10 bat ume uda familiekin pasatzekoak ziren. Iazko abenduan Tindufen izan ziren, udako proiektu biak prestatzeko. Baina pandemiak dena bertan behera uztea ekarri du. "Kolpe handia izan da guretzat, eta batez ere umeentzat", azaldu zuen Mikel Del Arko Rio de Oroko kideak.

"Elorrioko Lajwad elkarteko presidentea den Maialen Bernasek ere pena handia" zutela azaldu zuen. Iaz 9 ume etorri ziren herriko familiekin batera uda pasatzera. Denek 12 urte dituztenez, aurten euren azken bidaia izango zen. "Asko kostatu zait egoera onartzea, baina ez dago beste aukerarik. Hala ere, umeek ulertu dute egoera", zioen Bernasek.

Bestalde, Hamadako Izarrak elkarteak Axpeko aterpetxean hartzen ditu hainbat ume saharar. Aurten talde berri bat etortzekoa zen arren, ezin izan dute bidaia egin. Garazi Etxebarria elkarteko kideak azaldu zuenez, Aste Santuan Tindufera bidaiatzeko asmoa zuten umeak bisitatzeko. "Aste bi lehenago bidaia bertan behera utzi behar izan genuen, koronabirusa dela eta".

Naturari buruzko ikuskera erakusteko argazkiak

Kultura - ZALDIBAR

> ARGAZKIGINTZA. Lehior Elorriaga zaldibartarraren argazkiak ikusgai izan ziren, uda osoan zehar, Zarauzko (Gipuzkoa) Arkami Arkitektoak estudioaren galerian. Elorriagak naturari buruz duen ikuskera propioa erakutsi gura izan zuen argazki erakusketa horretan. Zaldibartarraren lehenengo erakusketa izan zen eta bertan batutako argazkirik gehienak kofinamendu aurretik eta ostean ateratakoak izan ziren, Euskal Herriko irudiak denak. Elorriagak azaldu zuenez, "bertan dauden arren, ezagutzen ez ditugun txokoak erakutsi gura ditut".

Autonomo profesional modura, koronabirusaren agerpenak galera handiak eragin dizkiola azaldu zuen Elorriagak. Hala ere, sortzaile moduan, hazteko balio izan diola nabarmendu zuen. Besteak beste, bigarren planoan izan dituen argazkiekin jolastu eta horiek publikatzeko tartea hartu zuen argazkilariak. "Etxean, nire gorputz biluziagaz esperimentatzeko aukera ere eduki dut. Asko gustatzen zaizkit azalagaz eta argiekin lortzen diren kontrasteak. Beharbada, konplexuagaitik ez dut horrelakorik egin orain arte", gaineratu zuen.

Elorrion ospatzekoa zen Ibilaldia bertan behera uztea erabaki zuten ikastolek

Kultura - ELORRIO

> EUSKARA. COVID-19 birusak eragindako osasun krisiaren ondorioz, Elorrion ospatzekoa zen Ibilaldia bertan behera uztea erabaki zuten, abuztuan. Ikastolen Elkarteko presidente Koldo Tellituk jakinarazi zuen, 2020an bertan behera geratuko zirela ikastolen aldeko jai guztiak. Tartean, Elorrion egitekoa zen Ibilaldia. 'Hel horri' lemapean ospatzekoa zen, maiatzaren 31n, oraingo honetan 41. aldia izango zuen Ibilaldia.

Hasieran, urriaren 18ra atzeratu zuten Ibilaldia. Ikastolen elkarteko presidenteak apirilean emandako agerraldian adierazi zuen Ibilaldia, Herri Urrats eta Araba Euskaraz ez zirela udaberrian ospatuko. "Saminez hartu behar izan dugu erabaki hau, baina ez zegoen beste irtenbiderik. Gure jaiak ez ditugu udaberrian ospatuko. Baina ez dira bertan behera geratuko, guretzat jai hauek oso garrantzitsuak dira eta", esan zuen orduan Tellituk. Elorrioko Txintxirri ikastolako zuzendari David Cobosek azaldu zuen beste data bat bilatzeko lanean hasita zeudela.

Maiatzean iragarri zuten data berria: urriaren 18a. "Buru-belarri ibili gara lanean, hainbat gauza aztertu ditugu, eta udazkenean ikastolen aldeko hainbat jai ospatzea erabaki dugu", azaldu zuten Ikastolen Elkarteko eta ikastolen jaietako ordezkariek. Araba Euskaraz, Herri Urrats eta Kilometroak egiteko datak ere iragarri zituzten. "Jai hauek ez dira orain arteko modukoak izango. Jaiak berrasmatzen gabiltza, egoera gatx honetan gizarteari erantzun egoki bat emateko asmoz. Ikastolen jai berrituak antolatuko ditugu eta desiratzen gaude jai hauek zuei eskaintzeko", esan zuen orduan Josune Bañales Ibilaldia Elkarteko presidenteak. Baina, azkenean, bertan behera utzi behar izan dituzte ikastolen aldeko jai guztiak.

Hala ere, Ibilaldia ospatu ez zuten arren, Elorrioko Txintxirri Ikastolak hainbat ekitaldi antolatu zuen urrian. 'Gora Kasete!' umeentzako ikuskizunaz eta Izaki Gardenak taldeak eskainitako kontzertuaz gozatzeko aukera izan zuten. Era berean, Galder Gaztelu-Urrutiak zuzendutako *El Hoyo* filma ikusteko aukera egon zen. Hainbat sari jaso duen filmaren zuzendariagaz berriketaldia ere antolatu zuten. Bestalde, urriaren 18an Ibilaldiaren agur ekitaldia egin zuten Txintxirri ikastolan. Bertsoak, magia, musika eta dantza uztartu zituzten.

Ilusioz betetako agur ekitaldia

"Urte osoa lanean egon eta gero, gaurkoan Ibilaldia 2020ari agur esan diogu.", azaldu zuten Elorrioko ikastolako kideek ohar batean. "Ikasturte osoan lanean ibili gara gure babesle, laguntzaile eta hornitzaileekin. Urtebetean Ikastolako familia eta lagunekin guztia prestatzen eta kultura arloko dozenaka eragilegaz ikuskizunak lotzen. Ohiko egoeran, maiatzak 31 egun handia izan behar zen gurean, milaka euskaltzale Elorrion bilduta", zioten. "Urriaren 18a heldu da eta ilusioagaz ekin diogu agur ekitaldiari. Ulertuko duzuen moduan, ez da erraza egoera honetan honen moduko ekitaldi bat egitea, baina ezin genion Ibilaldiaren urte honi besterik barik joaten utzi", gaineratu zuten. Egindako lan guztiagaitik eskerrak emateko ere aprobetxatu zuten.

Aspuru, Ipar Euskal Herriko 2. mailan nagusi

Kirola - ABADIÑO

> TRINKETEA. Asier Aspuru pilotari abadiñarrak Ipar Euskal Herriko 2. mailako txapelketa irabazi zuen trinkete jokoan, abuztuan, eta horri eskerrak datorren urtean 1. mailan lehiatzeko aukera zabaldu zitzaion. Aspuruk Kepa Arroitajauregi izan zuen gogoan. Pilotariak beti aitortu izan du Arroitajauregi ezinbesteko bidelaguna izan duela bere kirol ibilbidean.

Ekain Zenitagoiak Ibizan jokatuko du

Kirola- DURANGO

> FUTBOLA. Ekain Zenitagoiak Ibiza futbol taldean jokatuko du datorren denboraldian. Amorebieta taldea utzi eta gero, Bigarren B Mailako beste talde batera joango dela iragarri zuen 26 urteko futbolariak. Etapa berriari aurre egiteko gogotsu" zegoela azaldu zuen sare sozialetan, eta eskerrak eman zizkion Amorebieta klubari.

Joseba Muxika EAJko zinegotzia hil da

Herririk herri - ELORRIO

> HERIOTZA. Joseba Muxika Elorrioko Udaleko zinegotzi jeltzalea hil zen abuztuan. 47 urte zituen eta hamarkada bat zeraman EAJ udal taldeko ordezkari lez Elorrioko udalean. Sabiñanigon (Huesca) bizikletan zebilela ondoezik sentitu zen eta ospitalera eraman zuten, baina, azkenean, hil egin zen, EAJko iturriek berretsi zutenez. Muxika oporretan zegoen bere familiagaz. Ezkonduta zegoen eta seme-alaba bi zituen.

Ana Otadui alkate izan zeneko legegintzaldian sartu zen udalean (2011-2015) eta alkateorde kargua izan zuen. Etapa horren ostean, oposizioan ibili zen eta birritan aurkeztu zen alkategai. EAJren bozeramailea izan da udalean orain hilabete batzuk arte. Garazi Muruak hartu zuen, irailean, Muxikak udalean utzitako lekua. Ilusioz hartu zuen kargua, kargura eraman duen arrazoia "tamalgarria" dela aitortu arren. Muxika "erreferentetzat" duela gaineratu zuen.

Durangaldeko lau jokalari Athleticen

Kirola - DURANGALDEA

> FUTBOLA. Durangaldeko lau jokalarik Athletic taldeagaz debutatu zuten abuztuan, Logroñesen kontra jokatutako denboraldi-aurreko lehenengo lagunartekoan. Jon Sillero eta Ewan Urain durangarrek, eta Jon Morcillo eta Oier Luengo zornotzarrek bigarren zati osoa jokatu zuten. Oier Luengok 22 urte ditu eta Athleticek 2018-2019 denboraldian fitxatu zuen, Amorebieta klubetik. Bestalde, Jon Morcillo 21 urteko zornotzarra 2016-2017 denboraldian fitxatu zuten, Durangoko Kulturaletik. Kadete adina zuenean fitxatu zuten 20 urteko Ewan Urain, Kulturaletik hori ere. Eta 22 urte dituen Jon Sillero kimu adina zuenean fitxatu zuten, Durangoko Nevers ikastetxetik.

Izurtza Nordic Walking sarera batu da

Herririk herri - IZURTZA

> AISIALDIA. Izurtza Euskal Herriko Nordic Walking sarera batu da, lau ibilbidegaz. Herriguneetatik asko urrundu barik, oinezean ariketa egin eta inguruko paisaiekin eta aberastun kultural zein historikoekin gozatzeko aukera eskaintzen dute ibilbideek. Herriko aparkalekuaren ondoan, ibilbide guztien gaineko informazioa jasotzen duen panela ipini dute.

Euskaldun Berriako kirolgunea indartu dute

Herririk herri- IURRETA

> AURREKONTUAK. Iurretan Euskaldun Berria parkeko kirolgunea indartu du udalak, 2020ko aurrekontu parte hartzaileetan jasotakoari jarraituz. Abuztuan gauzatu zuten proiektua eta 5.000 euroko aurrekontua izan dute. "Orain, herritarrek beste kirol modalitate batzuk egin ditzakete, modu eskuragarriago eta hurbilagoan", azaldu zuen Zorione Fundazuri zinegotziak. Ekainean garatutako aurrekontu parte hartzaileen barruan beste proiektu bi egitea onartu zuen udalak: Maspe kaletik Bidebarrietara gasolindegitik pasatzeko irisgarritasuna hobetzea eta Zubiaurre 2an espaloia eta hondakinak biltzeko gunea berritzea.

Tecnaliaren ikerketa batek bentzeno maila "oso altuak" neurtu ditu Durangon

Herririk herri - DURANGO

> AIREAREN KALITATEA. Durangoko Udalak Airearen Kalitatearen Mahaia sortu du legegintzaldi honetan. Udal gobernuaren enkarguz, Tecnaliak ikerketa egin zuen 2019ko maiatzetik 2020ko maiatzera bitartean, eta ikerketaren arabera Durangoko eguratsean "oso bentzeno maila altuak" erregistratu ziren. Kutsaduraren jatorria Iurretan dago, txosten horren arabera. Gobernu taldeak "kezkagaz" eman zuen emaitzen berri, eta Airearen Kalitatearen Mahaia sortzeaz gainera bestelako "pausoak" eman ditu arazoa konpondu guran. Azaroan, udal gobernu taldeko hainbat kidek Legebiltzarraren Ingurumen Batzordean parte hartu zuten eta Jaurlaritzari "gehiago inplikatzeko" eskatu zioten. Tecnaliaren txostenaren arabera, Durangon metro kubikoko 0'58 mikrogramo bentzeno erregistratu ziren batez beste 2019an. Legez, isurketek ezin dute metro kubikoko bost mikrogramo baino bentzeno gehiago bota. Batez bestekoa bertan sartzen den arren, 700 mikrogramo bentzeno erregistratu dira momentu batzuetan. "Udal honek pauso bat eman du. Orain besteei dagokie pauso bat ematea", azaldu zuen Ima Garrastatxu alkateak.

Mugarza, kutsatuen katea mozteko lanean

Herririk herri - MALLABIA

> KORONABIRUSA. Garazi Mugarza erizain mallabitarra aztarnari lez aritu da lanean Galdakaoko ospitalean; Epidemiologia Sailekoekin eta Osalanegaz koordinazio eta bitartekaritza lanetan ere aritu da. Koronabirusean positibo eman dutenen kontaktu estuen zerrenda osatzeaz arduratzen dira aztarnariak, kutsatzen dabiltzanen katea mozteko asmoz. Berrogeialdia ondo egiteak duen garrantzia azpimarratu zuen.

"Bizikleta elektrikoa aurkikuntza itzela da"

Akuilua - OTXANDIO

> GIZARTEA. Jabi Axpek 25 urte daramatza Danoena taberna kudeatzen; estankoa ere badu herrian, eta aurten erronka berri bati ekin dio: bizikleta elektrikoak alokatzen hasi da. "Bizikleta elektrikoa aurkikuntza itzela izan da niretzat, eta ikusita Otxandion geroago eta turismo gehiago dagoela, bizikleta elektrikoak alokatzea okurritu zitzaidan".

Zomorro agerraldiak ikusmina sortu du

Herririk herri - GARAI

> NATURA. Garaiko Aiartza auzoaren inguruetan zomorro talde handi bat agertu zen eta ikusmina sortu zuen. Bizkaiko Foru Aldundiak jakinarazi zuenez, *Mythmna unipuncta* zen zomorroa, tximeleta-har gautar bat. Garaiko Udalak plagak kontrolatzeko enpresa bati deitu zion eta Javi Lombera langileak azaldutakoaren arabera, eguraldiagaz lotuta egon zitekeen zomorroen agerraldia: "Egunotako sikateagaitik izan daiteke, baita sikate osteko trumoiagaitik ere". Horrez gainera, lasaitasunerako deia ere egin zuen Lomberak, "plaga arriskutsua" ez zela argudiatuta. Berrizen, Atxondon eta Abadiñon ere antzerako egoerak bizi izan zituzten.

'Ibaiertzeko ipuina' Amantegiren lehenengoa

Kultura - ZORNOTZA

> LITERATURA. Oihane Amantegi idazle zornotzarrak bere lehenengo eleberria kaleratu du, Elkar argitaletxeagaz. AEBetako hegoaldeko bazter galdu bateko ibaiertz batean bizi den jendeari buruzko istorioa dakar liburuak. Besteak beste, heriotzari buruz berba egin du Amantegik eleberrian, ume baten ikuspuntutik. Apirilean zen kaleratzekoa liburua, baina pandemiaren ondorioz "udako irakurketa" bihurtu zen askorentzat.

Eneko Sagardoy Zinemaldian, 'Patria'-gaz

Kultura - DURANGO

> TELEBISTA. Osasun egoerak baldintzatutakoa izan arren, Eneko Sagardoy aktoreak beste urte emankor bat eduki du. *Hil kanpaiak* filmean, *Hondar ahoa* telesailean eta *Ama Kuraia* antzerkian parte hartu du durangarrak. Baita zurrunbilo mediatiko handia izan duen *Patria* telesailean ere. Nazioarteko HBO ekoiztetxearen proiektu hau Zinemaldian estreinatu zen, eta telesaila 70 herrialde baino gehiagotan emititu dute.

Zigorra beteta, Alaitz Areitio Iurretara itzuli da

Herririk herri - IURRETA

> PRESOAK. Alaitz Areitio Azpiri preso iurretarra aske geratu da espetxean hamahiru urte egin ondoren. ETAko kide izatea leporatuta egon da espetxean. Irailaren 18an irten zuen Renneseko (Bretainia) espetxetik, baina COVID-19aren protokoloaren ondorioz ezin izan zen Euskal Herrira itzuli urriaren 5era arte. Alaitz Areitio 2007ko ekainean atxilotu zuten, Frantzian, Aitor Lorentegaz eta Igor Igartuagaz batera. Guztira, hamazazpi urte egin ditu Iurretatik kanpora.

Rafa Harategiaren lokala erosi eta denda horren kudeaketa lehiaketara aterako du Mañariko Udalak, herriko komertzio bakarrari eutsi guran

Herririk herri - MAÑARIA

> KOMERTZIOA. Rafa Harategiko arduraduna den Rafa Bizkarrak erretiroa hartuko du 2021eko otsailean. Herriko denda bakarrari bizirik eutsi guran, lokala erosi eta dendaren kudeaketa lehiaketara ateratzea da udalaren asmoa. Herritarren iritzia eta ekarpenak jasotzeko, saio parte hartzaileak ere antolatu dituzte lizitazioa zelan egin erabaki aurretik. Herritar asko bertara joaten dira erosketak egitera, eta Mañaritik kanpoko zenbait ere joan ohi dira, harategian saltzen duen okelaren kalitateagaitik. 50 urteko ibilbidearen ostean, Bizkarrak erretiroa hartuko du eta Mañariak arriskua du halako komertziorik barik geratzeko. "Herrian ez dago beste dendarik eta oinarrizko zerbitzua dela deritzogu. Nagusientzat, esaterako. Herriari bizia ematen dio eta etorkizunean horrelako denda bat egongo dela bermatu gura dugu", azaldu zuen Ainara Otxotorena Mañariko alkateak. Denda bizirik mantentzeko ahalegina albiste ona iruditu zitzaion Rafa Bizkarrari. "Ideia ona da, herrian ez dagoelako horrelako beste dendarik. Erreleboa ilusioa duen eta negozioa eramaten dakien batek hartzea gustatuko litzaidake", azaldu zuen. Bizkarra harategia lez ezaguna den denda 1968an zabaldu zuen Rafa Bizkarraren aitak; egungoaren alboan dagoen beste lokal batean zabaldu zuen. Rafa bera 1970ean hasi zen bertan lanean. Hasieran harategia baino ez zen, gerora gehitu zioten denda, eta 1985ean lekualdatu zuten denda egungo tokira, leku handiagoa behar zutelako.



Musika Eskolaren eraikin berria zabalik

Herririk herri - ZORNOTZA

> MUSIKA. Ikasturte hasieragaz batera, Zornotzako Musika Eskolak eraikin berria estreinatu du. Zelaieta Zentroaren alboan dago eraikin berria. Zubiaur musika eskolak 500 ikasle baino gehiago hartu ditzake orain. Musika eskola berria egiteko lanek 20 hilabete iraun dute, eta udalak 2,5 milioi euro ipini ditu obretarako.

Fusilatuak omentzeko lore eskaintza gune bitan

Herririk herri - BERRIZ

> MEMORIA. Frankismoan hildako eta errepresaliatutako herritarrak omendu eta gogoratu zituzten irailaren 11n. Aurten ekitaldi bakarra egin da, jende pilaketak ekiditeko, eta gune bitan egin behar izan zuten lore eskaintza.

Irati Bilbaok 'Begin' diskoa kaleratu du

Kultura- DURANGO

> MUSIKA. Irati Bilbao abeslari durangarrak *Begin* diskoa publikatu zuen udazkenean. Errabal (Gaztelupeko Hotsak) jazz zigiluagaz kaleratu du bere ibilbideko bakarkako lehenengo lana dena. "Oso pozik nago, eta harro. Euskal Herriko jazz erreferentzietariko asko eurek ateratzen dituzte. Zigilu txikia da, baina espezializatua, eta hori pozgarria da". Osasun alerta egoeraren ondorioz zuzenean jotzeko aukera gutxi eduki ditu, baina, hala ere, pozik dago edukitako aukerekin. "Oholtzara berriro igo nuenean ikusi nuen benetan zenbat igarri nuen zuzenekoen falta. Segurtasun neurriengaitik-eta, ez ziren betiko sentsazio berdinak, baina oso ondo egon ziren", esan zuen. Aurrera begira, ibilbide propioa lantzeaz gainera, orain arteko moduan elkarlanekin jarraitzea gustatuko litzaioke abeslari durangarrari. "Beti daude erosoago nagoen gauzak, baina erronka berriak edukitzea da politena nire ustez. Nik idatzitakoa abestea oso ondo dago, baina beste estilo batera moldatu behar naizenean ere asko disfrutatzen dut". Ekuruk kaleraturiko diskoaren grabaketan ere parte hartu du Bilbaok.

Koronabirusak baldintzaturiko itzulera

Herririk herri - DURANGALDEA

> ESKOLA. Ikasturte berriaren hasiera aldapatsua izan zen COVID-19aren eraginez. Kasu positiboen agerpenen ondorioz, hainbat ikaslek berrogealdian egon behar izan zuten, eta Zaldibarko eskola itxi egin behar izan zuten irailean. Hasiera bakarrik ez, ikasturtea bera baldintzatu du koronabirusaren agerpenak. Horrez gainera, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako ikastetxeetako sindikatu guztiek (ELA, LAB, Steilas, CCOO eta UGT) greba deialdia egin zuten. Hezkuntza Sailaren kudeaketa "onartezina eta arduragabekoa" izan zen ikasturte hasieran, sindikatuen esanetan. Euren berbetan, lanuzteek %70eko jarraipena izan zuen. Hezkuntza Sailaren esanetan, ostera, %41,9koa. Sindikatuen deialdia hezkuntza komunitateko hainbat eragilek babestu zituzten; besteak beste, Berton Bertokoa mugimenduak, Atxondoko Ikasle eta Gurasoen Elkarteak eta Ikasle Abertzaleak elkarteak. Iñigo Urkullu lehendakariaren esanetan, grebaren helburua "Eusko Jaurlaritza eratu berria kritikatzea eta giroa nahastea" zen.



Sorginen Lasterketako marka hobetu du

Kirola - ATXONDO

> KORRIKA. Gontzal Murgoitio elorriarrak Sorginen Lasterketa irabazi zuen. Proba irabazi bakarrik ez, 2019an Imanol Goñik ezarritako marka (1.39.40) ia minutu bian hobetu zuen: 1.37.53. "Denak ondo irteten duen egun horietarikoa izan zen: hankak ondo, tripak ere bai, burua argi... lasterketa borobila egin nuen", azaldu zuen elorriarrak. Anbototik igarotzean minutu bateko aldea ateratzen zion Goñik Murgoitiori; hala ere, aldatsean behera alde osoa jan zion, eta tarte teknikoa amaitzerakon aurreratu egin zuen.

Trabakugoiko pasabidea zabaldu dute

Herririk herri - MALLABIA

> AZPIEGITURAK. BI-633 errepidea zeharkatu ahal izateko, bide gainetik pasabidea zabaldu dute. Azpiegitura nagusia, pasabide estalia, abuztuaren hasieran ipini zuten, eta argindar sarea sartutakoan zabaldu zuten pasabidea. Goitako, Gereako eta Longako auzotarrek erabaki zuten bide gaineko pasabidea egitea. Mallabiko Udalak Egoin enpresari esleitu zizkion proiektuko lanak, 550.000 eurotan. Horietariko 25.000 euro Bizkaiko Foru Aldundiak ipini ditu. Honenbestez, udalak auzotarren eskaera historiko bat bete du pasabidea ipinita.

Ziklo baten itxiera Plateruenean, hamarkada biko ibilbidearen ostean kooperatiba deseginda

Kultura - DURANGO

> PLATERUENA. Ia hogei urteko ibilbidea egin eta gero, Plateruneneko bazkideek kooperatiba desegitea erabaki zuten. "Pena handiz", Gontzal Aizpurua zuzendaritzako kideak ANBOTOri eskainitako elkarrizketan azaldu zuen moduan, baina "oso pozik" egindako lanagaz. "Kulturaren eta euskararen arnasgunea izan da. Helburu hori bete du Plateruenak", esan zuen. "2.000 ekitalditik gora antolatu ditugu 16 urtean. Durangarrek, kulturgileek, bazkideek, langileek, kolaboratzaileek, boluntarioek... denon artean egin dugu hori", gaineratu zuen Ihintza Orbegozo Plateruneneko kultur arduradunak elkarrizketa berean, etorkizunera begira euskal kultura bultzatuko duen proiektuan parte hartzeko gonbita eginda. Eraikina Durangoko Udalaren esku geratuko da 2021ean.



Judit Muñozek Vicent Caselles saria jaso du

Herririk herri - ABADIÑO

> ZIENTZIA. Judit Muñoz matematikari abadiñarrak Vicent Caselles saria irabazi du aurten. Horrez gainera, Eusko Jaurlaritzaren beka bat jaso du hiru urterako. Urtarrilean AEBetara joango da urte birako, Texasko Unibertsitateko Austingo Oden Institute for Computational Engineering and Sciences institutura. Muñoz doktoretza ondoko ikertzailea da BCAM Matematika Aplikatuen Euskal Zentroan. "Pozik" dago erronka berriagaz. "Jendeak uste duenaren kontra, ikerlarion lana oso kreatiboa da. Denbora guztian gauza berriak asmatzen gabiltza", esan zuen.

Biribilgunea egingo dute Hirubiden

Herririk herri - ATXONDO

> OBRAK. Errepidearen titulartasuna lortuta, Atxondoko Udalak biribilgunea eraikiko du Hirubideko bidergurutzean. Aldundiak 800.000 euro eman dizkio lan hori egiteko. Hamarkadatako arazoa konpondu gura du horrela udalak. "Puntu hori arriskutsua izan da hainbat hamarkadatan herriko erdigunetik irten eta Abadiño eta Elorrio lotzen dituen bidean sartzeko", adierazi zuen Xabier Azkarate alkateak. EH Bilduk desadostasuna agertu zuen titulartasuna aldatzeagaz, herria "hipotekatu" dezakeelako.

Errepresio testigantzak batuko dituzte

Herririk herri - ZORNOTZA

> MEMORIA. Zornotzarrek jasandako errepresio mota desberdinak dokumentatzeko testigantzak batzeari ekin diote. Udalak eta Aranzadik hasi dute ikerketa, gerra zibilean eta gerraostean Zornotzan izandako errepresioa dokumentatzeko. Dei egin diete herritarrei sasoi hartako gertakari edo testigantzaren baten berri izanez gero, Aranzadigaz hartu-emanetan ipintzeko. Errepresio mota desberdinei ikusgarritasuna emateko baliatuko dute ikerketa.


MAÑARIKO
UDALA
946 818 998
www.manaria.org

Tren geltoki zaharraren geroari buruzko galdeketa martxoaren 14an egingo da

Herririk herri - DURANGO

> GALDEKETA. Hasi da atzera kontaketa. Durangoko Udalak martxoaren 14an egingo du tren geltoki zaharraren inguruko herri galdeketa, eta horregaz, durangarrek erabakiko dute indarrean dagoen PERI 1 ferrocarril proiektuagaz zer gertatzen den. Indarrean dagoen proiektua baztertzea da aukera bat, dagoenagaz aurrera egitea bestea. Herritarrek erabakiko dute.

Herri galdeketaren araudia EAJren, EH Bilduren eta Herriaren Eskubidearen aldeko botoekin onartu zen; PSE-EE abstenitu egin zen, araudiko puntu batzuekin konforme ez zegoela-eta. Bestalde, Erabaki plataformak galdeketan parte hartzera dei egin die herritarrei. EH Bilduk eta Herriaren Eskubideak "herritarren txanda" dela adierazi zuten. "Gobernu taldearentzat loteslea izango da, baietzak zein ezetzak irten". EAJk galdeketa berme guztiekin egitea eskatu du.

Araudiaren arabera, martxoaren 14an egingo da galdeketa, udaberriko oporraldia baino asteburu bi lehenago; kanpaina martxoaren 12an amaituko da eta 13a hausnarketa eguna izango da. Botoa gune bakarrean emango da, Landako Gunean; ez da egongo posta bidezko botoa emateko aukerarik. Durangon erroldatuta dauden 18 urtetik gorako herritarrak daude deituta galdeketan parte hartzera. Galdeketa juridikoki loteslea ez denez, araudiak ez du markatzen emaitzaren zilegitasuna baldintzatzeko gutxieneko partehartze kopururik.

Durangon egingo den lehenengo herri galdeketa izango da.

Lan-hitzarmena sinatzeko negoziaketan

Kirola - BERRIZ

> PILOTA. Baiko pilota enpresan denboraldi hasiera gatazkatsua eduki dute. Bertako pilotaririk gehienek, tartean Ibai Zabala berriztarrak, prentsaurrekoa egin zuten euren egoera salatu eta enpresari jarrera aldaketa eskatzeko. Zabalak lehenengo lerrotik defendatu ditu bere eta bere kideen eskubideak. Hain zuzen ere, greba deialdia egin zuten, eta baturik dagoen sektorea dela ikusi da bertan. "Duintasuna eta elkartasuna gauza guztien gainetik", adierazi zuen Zabalak. Aurrera begira, pilotarien eskubideak defendatuko dituen elkarte bat sortzeko asmoa ere erakutsi dute hainbat pilotarik. "Edozein duda duenean, pilotariak hara jo ahalko du, eta enpresekin ere gutxiengo batzuk markatzeko balioko luke. Eskubideak ere baditugulako", gaineratu zuen Zabalak.

Asier Aginako preso ohia hil da

Herririk herri - DURANGO

> PRESOAK. Asier Aginako preso ohi durangarra hil zen, gaixotasun baten ondorioz. Aginakok 2019ko urtarrilean irten zuen kartzelatik. Espainiako Auzitegi Nazionalak bere zigorra etetea erabaki zuen, osasun arazoak zituelako. 2004an atxilotu zuten Aginako, Frantzian, Aitziber Coello bikotekideagaz batera. Coellok maiatzean irten zuen kalera, zigorra amaituta.

Partekatzea, emantzipatzeko gakoetariko bat

Herririk herri- DURANGALDEA

> ETXEBIZITZA. ANBOTO Durangaldeko lau gaztegaz batu zen emantzipazioaren arazoari buruz jardunteko. Lan kontratu ezegonkorrak eta prekaritatea azpimarratu zituzten laurek gurasoen etxetik irteteko zailtasunen jatorri. Instituzioetatik eskaintzen diren diru laguntza publikoak lortzeko zailtasunak nabarmendu dituzte.

Ainhoa Urienen lehenengo liburua kalean

Kultura - ABADIÑO

> LITERATURA. Ainhoa Urien idazle abadiñarrak bere lehenengo liburua kaleratu du, *Poesia zaurien ukendu. Xabier Leteren arrastoan*. Pamielagaz argitaratu du liburua. Xabier Leteren poemek berarengan izandako eraginaz eta sorkuntzaren balio terapeutikoaz berba egin du Urienek lehenengo lan honetan. "Esateko zailak zaizkigun egoerak ulertzen eta adierazten laguntzen digu poesiak, minarenak zein plazerarenak", adierazi zuen. Abadiñarrak bidaia bat proposatzen dio irakurleari, eta bidaia horren "konplize" izatea gura du. "Asko kostatzen zaigu geratzea, jendeagaz egotea eta berba egitea. Bada, jendeagaz egonda egin dut liburua hain zuzen ere. Eta horixe da nire bidaia, jendeagaz egon ahal izate hori. Ez da erraza, baina egin daiteke", nabarmendu zuen. Hain zuzen ere, abenduan hamar urte bete dira Xabier Lete hil zela. "Iruditzen zait ez zaiola egiten merezi duen aitortza. Konturatzen ez garen hainbat gauza eman dizkigu Letek. Eta ez dago plazarik edo kalerik bere izenagaz. Bere lana gustatu edo ez, egindako ekarpena itzela da", argudiatu zuen.

Udalaren babesa herriko hiru emakumeri

Herririk herri - ABADIÑO

> INDARKERIA MATXISTA. Sexu erasoengaitik kondenatutako gizonezko abadiñarraren indultu eskaeraren aurrean, Abadiñoko Udalak "babes osoa eta baldintzarik bakoa" agertu zien hiru biktimei. Era berean, udalak dei egin zien abadiñarrei "biktimen erreparazio eskubidearen alde" lan egiteko. 2019an Auzitegi Gorenak hamahiru urte eta erdiko espetxe zigorra ezarri zion egun kartzelan den abadiñar honi, "etenik bako sexu-indarkeriagaitik"; erasoen momentuan, hiru emakume horietariko bi adin txikikoak ziren. Biktimei babesa agertzeaz gainera, Abadiñoko Udalak indarkeria matxistaren aurka bere gaitzespena agertu gura izan du. "Egungo krisialdi soziosanitarioan, inoiz baino garrantzi handiago du matxismoaren aurkako lanak", adierazi zuten.

Indarkeria matxistaren aurkako oihu bateratua entzun da Durangaldean

Herririk herri - DURANGALDEA

> AZAROAK 25. Bakoitzak beretik baina instituzio eta herri mugimendu guztiek bat egin zuten puntu berean, indarkeria matxistaren kontra egiterako orduan. Azaroaren 25ean, Indarkeria Matxistaren Kontrako Eguna izanik, tokian tokiko instituzioek eta herri mugimenduek mobilizazioak egin dituzte.

Oroimenerako gunea

Indarkeria matxistagaitik eraildako emakumeak gogoratzeko asmoz, Durangoko Udalak eta herriko eragile feministek gune bat atondu zuten azaroan, Ambrosio Meabe kalean. Azaroaren 28 goizean inauguratu zuten gunea eta bertan izan ziren udal ordezkariak eta Durangoko mugimendu feministako kideak. "Gunearen helburua biktimei erreparazioa emateko printzipioa ezartzea izan da, prebentzio- eta eskuhartzeko politiken bitartez, baina baita biktimen estatusa legitimatzen eta duintzen duten politiken bitartez ere", adierazi zuten Durangoko Udaleko kideek. "Indarkeria matxistak eraildako emakumeen memoria historikoa justizia sozialeko eta aintzatespeneko ekintza bat da, memoria indibidualetik kolektibora igarotzen dena, eta herritarren sentsibilitatea eta kontzientziazioa bultzatzen duena. Indarkeria matxistak hildako emakumeez ari garenean, estatistiketatik haratago joan gura dugu. Beldurra, pasibotasuna, biktimismoa, lotsa, errua eta halako estigmetatik ihes egin behar da. Horregaitik etorri gara gaur Ambrosio Meabeko plaza honetara. Indarkeria matxistak eraildako Durangoko emakumeak omentzeko, Mugimendu Feministak eta guk, udal gisa, ahanzturan jaustea saihestu gura dugun plaka baten bitartez", adierazi zuten Ane Abanzabalegi eta Mikel Uriguena zinegotziek.

Non kutsatzen garen aztertzen

Herririk herri - DURANGO

> IKERKETA. Koronabirus sasoian, bada galdera zentral bat oraindino erantzun zehatzik aurkitu ez zaiona. Non eta zelan kutsatzen gara? Informazio hori bilatu guran, EHUko talde batek, Ugo Mayor (Donostia, 1975, Ikerbasqueko ikerlaria ere bada) buru duela, ikerketa bat martxan ipini du Durangoko Udalagaz. "Baheketetan aleatorioki topatu diren positiboek kontaktuen paradigma berraztertzeko aukera ematen digute", azaldu du Mayorrek.

AEBko hauteskundeen kronika zuzenean

Herririk herri - ELORRIO

> HAUTESKUNDEAK. May Uriarte Sanders elorriarra Kalifornian bizi da. AEBko hauteskundeetako aldaketa "itxaropenagaz" bizi duela azaldu zuen.

Mankomunitatea Durangoko Elkartegian

Herririk herri - DURANGO

> EGOITZA BERRIA. Behargintza, Adineko, Adikzioen Prebentziorako Zerbitzua eta Euskara zerbitzuak Elkartegira lekualdatu dituzte.

Ostalarien mobilizazioak itxieraren aurrean

Herririk herri - DURANGALDEA

> OSTALARITZA. Asteetako itxieraren aurrean, Durangaldeko ostalariek hainbat protesta egin dute euren egoera azaleratzeko, Iurretan, Elorrion, Berrizen eta Zaldibarren. "Ez dugu laguntzetatik bizi gura, lana egin gura dugu. Ez dugu haien ogi-apurrik gura", kritikatu zuten sektoreari emandako laguntzen inguruan galdetuta. "Protesta egitea geratzen zaigu, zarata egitea. Ea entzuten diguten", gaineratu zuten ostalariek.

Txomintxo eta Perutxo Legebiltzarrean

Kultura - DURANGO

> LITERATURA. Txomin eta Peru Magdalena durangarrek Txomintxo eta Perutxo pertsonaien bosgarren abentura aurkeztu zuten. Oraingo honetan, gazte biak Gasteizera doaz klasekideekin batera, Eusko Legebiltzarrera. Bertan direla, Iñigo Urkullu lehendakaria eurengana hurreratu eta erronka botako die : "Zuek hobeto egingo al zenukete?". Horrela, astebetean Ajuria Enean egongo dira, aginte makila eskuan dutela.

Lokalaren esleipena negozioa zabaltzeko

Herririk herri - MALLABIA

> LOKALA. Mallabiko Udalak lehiaketa abiatu du Ekipamendurako Eraikina deiturikoan dagoen lokal bat alokatzeko. Udalerrian zerbitzu enpresa bat lehenengoz martxan ipintzeko proiektua duten pertsonei laguntzea da helburua, eta horretarako azpiegitura bat eskaintzea. Baldintza orrian zehazten dira zer zerbitzu mota eskaini daitezkeen. Batez ere, udalerriak ez dituen zerbitzuetara eta herriari onura eskainiko dion negoziora bideratu gura dute: elikagaien salmenta, etxeko gaien salmenta, papertegia...

Euskaraldia: Ahobizi eta Belarriprest txapak ipinita mingaina bizi-bizi

Herririk herri - DURANGALDEA

> EUSKARALDIA. Azaroaren 20tik abenduaren 4ra bitartean, Euskaraldiak mingainak dantzan ipini ditu Euskal Herri osoan, baita Durangaldean ere. Hizkuntza ohiturak aldatzeko bultzada legez planteatzen den ariketak milaka lagun batu zituen. Txapa aldean ipinita, Ahobiziek eta Belarriprestek ahalegin handia egin zuten. Gaur egun bizi dugun osasun egoeran, Durangaldeko herrietako batzordeek ere lan handia egin zuten txapak banatzen zein egitarauak prestatzen. Euskaraldian parte hartu zuten hainbat lagun elkarrizketatu zuen ANBOTOk. Traña-Matienako fruta-dendako Marian Martinez Belarriprestak azaldu zuenez, "denda inportantea izan da niretzat euskaraz ikasteko". *Ahobizi* txapa ipinita, Irantzu Miguel ile-apaintzaile zaldibartarrak ere partu hartu du Euskaraldian. "Bezeroek ikusten dute txapa ipinita dudala eta kontuan hartzen dute", azaldu zuen Miguelek. Saioa García berriztarra Belarripresta izan da. "Lagunarte euskaldun batean erdaraz aritzeko ohitura errotzen denean, gero oso zaila da ohitura horri buelta ematea", esan zuen. Euskaraldiko nobedadeetariko bat ariguneena izan zen. Hainbat enpresatan lan hizkuntza euskara izateko ahalegina egin dute.

Toloto erreka berbideratu dute

Herririk herri - ELORRIO

> OBRAK. URAk, Uraren Euskal Agentziak, azaroan amaitu zituen Toloto erreka berbideratzeko lanak. Udalak eta URAk orain hiru urte sinatu zuten hitzarmena eta lanak iazko urrian hasi ziren, 1.608.594 euroko aurrekontuagaz. Udalerriko zenbait gunetan uholdearriskuaren arazoari amaiera ematea eta herritarren mugikortasunari begira hobekuntzak egitea ziren proiektuko helburuetariko batzuk.

Umeen eskubideak eztabaidagai

Herririk herri - DURANGALDEA

> IDATZIA. Itxialdi posible baten aurrean, hainbat gurasok umeen eskubideak erdigunean ipintzea eskatu dute. 'Haurren itxialdirik ez!' adierazpenak ehunka sinatzaile batu ditu. Hausnarketarako deia egin dute. Ander Berrojalbiz durangarrak 'Haurren itxialdirik ez!' manifestua kaleratu du Maider López bikotekideagaz batera.



Iurretako alkatearen aurkako salaketa

Herririk herri - IURRETA

> EPAITEGIAK. Iurretako idazkariak Iñaki Totorikaguena alkatea salatu zuen, ustezko prebarikazioagaitik. Salaketa horretan, aurretik zegoen behargina lanean jazarri izana egotzi zion behin-behineko kontu-hartzaileari. Durangoko auzitegiko epaile batek diligentziak zabaldu zituen. Egoera horren aurrean, EH Bilduk azalpenak eskatu zituen.

Totorikaguenak nabarmendu zuenez, udalaren prozedura "zuzena" eta "legeagaz bat datorrena" dela baliozkotzen duen kanpoko aholkulari juridiko baten txostena dute.

Bestalde, Iurretako alkateak egindako eskaria onartu du Aldundiak eta idazkari berria izendatu zuen azaroan.

IZURTZA
UDALA
Tel.: 946 813 548
www.izurtza.net

Berriz berriro Mankomunitatean

Herririk herri - BERRIZ

> ERABAKIA. Berriz Mankomunitateko kide izatera pasatu zen, bertatik kanpora 22 urte eman ostean. Erabakiagaz, berriztarrek zabalik zuten aukera Mankomunitatearen gizarte zerbitzuak, adinekoen zerbitzua, adikzioen prebentziorako zerbitzua, etxerik etxeko arreta zerbitzua edo kirol instalazioen zerbitzuak erabiltzeko. "Behingoz, Mankomunitatean batuta daude Durangaldeko herri guztiak", adierazi zuen EAJk. Oposizioak, ostera, kritikatu egin zuen "denbora falta" egon zela prozesua behar den moduan egiteko. Erabakiak herrietako zerbitzu sozialei zelan eragingo dien kezka adierazi zuen EH Bilduk.

Presoen hurbilketak eta Euskal Herriratzeak

Herririk herri - DURANGALDEA

> DISPERTSIOA. Durangaldeko hainbat preso gerturatu edo Euskal Herriratu egin dituzte azken hileetan. Ekainean jakin zen Gorka Lupiañez durangarra Salamancatik Logroñoko espetxera hurreratuko zutela. Espetxe horretara bertara lekualdatuko dituzte Itziar Alberdi durangarra eta haren bikotekide Josu Narbaez ere. Biak Madrilgo Estremera kartzelan egon dira. Aitzol Maurtua atxondarra Huelvatik Palentziara gerturatuko dute eta Oier Andueza durangarra Euskal Herriratu egin dute: Murtziatik Basauriko kartzelara. Giller Merino preso durangarra Valentziako espetxetik Zuera lekualdatu dute. Gregorio Vicario Setien preso durangarra Salamancatik Burgosko espetxera lekualdatuko dute.

Gaur egun isolatuta jarraitzen duen preso bakarra Iurdan Martitegi da. Uztailean Espainiaratu zuten, Frantziatik Soto del Realgo kartzelara. Martitegi isolamendutik ateratzea eskatu zuten hainbat herritarrek azaroan Durangon egindako giza katean eta mosaikoan.

Ezohiko Durangoko Azokan euskal kulturaren tapauda ez da eten

Kultura - DURANGO

> AZOKA. Durangoko Azokaren antolatzaileek aurtengo edizioaren balorazio positiboa egin zuten. "Gure aurreikuspenak bete eta gainditu ditu", adierazi zuen Nerea Mujika Gerediaga elkarteko presidenteak, hunkiturik Azoka amaierako prentsaurrekoan: "Hunkituta gaude kulturzaleen aldetik jaso dugun erantzunagaz, ikaragarria da jaso dugun taupada kolektiboa". Abenduaren 4tik 8ra bitartean 7.800 erosketa egin ziren Durangoko Azokaren denda digitalean, Arantza Atutxa Gerediagako kudeatzailearen berbetan: "Asko izan dira egun hauetan agortu diren produktuak eta hainbat sortzaile, argitaletxe eta diskoetxetako kideek etorri behar izan dute produktu gehiago ekartzera". Hain zuzen ere, Landako Guneko biltegian lanean jarraitu zuten hurrengo egunetan ere, jasotako eskari kopurua dela eta. "Guztira, 27.758 produktu erosi dira, eta erosle bakoitzak 53 euroko gastua egin du, batez beste", gehitu zuen Atutxak. Denda digitalak 147.000 bisita jaso ditu. Denda digitalaz gainera, ezohiko Durangoko Azoka honetan bi izan ziren gune nagusiak: Landako Gunea eta Plateruena. 100 kultur jarduera egin zituzten bertan, eta 43.500 lagunek streaming bidez jarraitu ahal izan zituzten Azokaren webgunean. Mexikotik, Argentinatik eta AEBetatik ere konektatu zirela azpimarratu zuten.

Gurutze Frades triatleta Daytonan

Kirola - IURRETA

> TRIATLOIA. Daytona Challenge probak munduko triatloilaririk onenak batu zituen Floridako (AEB) autodromo famatuan. Gurutze Fradesek 30. tokian amaitu zuen.

KURUTZIAGA IKASTOLA

BIZITZEKO HEZI

ESKAINTZA:
0 urtetik 18 urtera bitarteko hezkuntza eskaintza

HELBURUA:
Ikasle eleanitz, kritiko eta euskaldunak

JANTOKIA:
Bertokoa, sasoikoa eta produktu ekologikoak

ikastolenelkartea

ibaizabal

www.kurutziagaikastola.eus

Gualbi
asesores

www.gualbiasesores.com

- Aholkularitza fiskala
- Kontabilitate-aholkularitza
- Merkataritza eta finantza-aholkularitza
- Lan-aholkularitza
- Kontu-auditoretza
- Aholkularitza juridikoa

Bezeroa, bere enpresako kudeaketa eta bere gogobetetzea dira gure helburu nagusia

Zumalakarregi kalea, 18 1.A - DURANGO
Tel.: 946 818 636 - Faxa.: 946 203 637 - info@gualbiasesores.com